

PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD
MAYORES DE 25 AÑOS
Y MAYORES DE 45 AÑOS

FASE GENERAL



EUSKARA

MODULUA

ARIKETAK

ERANTZUNAK

PROBA

ERANTZUNAK

BALIABIDEAK ETA
PROGRAMAZIOA





Modulua

EUSKARA

**Unibertsitaterako sarbidea: 25 urtetik gorakoentzat
eta 45 urtetik gorakoentzat**

Gutxi gorabeherako iraupena: 90 ordu



AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA ETA HELBURUAK

2. EDUKIAK

1. MULTZOA: HIZKUNTZA ERAKUNDE HARREMANETAN (15 ordu)

Ezagutzaren adierazleak

2. MULTZOA: HIZKUNTZA IKASKUNTZAN (30 ordu)

Ezagutzaren adierazleak

3. MULTZOA: HIZKUNTZA GIZARTE KOMUNIKABIDEETAN (30 ordu)

Ezagutzaren adierazleak

4. MULTZOA: HIZKUNTZA PERTSONEN ARTEKO HARREMANETAN (15 ordu)

Ezagutzaren adierazleak



1. AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Komunikazio-jarduera hizkuntzaren gizarte-toki edo erabilera-esparru desberdinetan garatzen da. Horien ezaugarriek (solaskideak, xedea, ekintzak, gizarte-harremanak...) baldintzatzen dituzte beraietan sortzen diren testuen berezitasunak.

Jardun akademikoan, beste edozein giza jardueratan bezalaxe, komunikazio-egoera jakin batzuk (bilerak, elkarrizketak, biltzar profesionalak, gatazkak...) sortzen dira. Egoera horietan hainbat pertsona daude inplikaturik eta xede desberdinei erantzuten dieten hainbat testu (txostenak, artikulua, monografiak...) sortzen dira. Testu horiek ulertzen eta sortzen trebatzea da modulu honen oinarriko helburuetakoa.

Modulu honetan integratzen dira jardun akademikoa eta gizabanako helduaren jardunarekin zerikusia duten hizkuntza ikasketak. Hori dela eta, honako hizkuntz erabilera eremuak landuko dira:

- **Erakunde-esparrua, banakoaren eta gizarte-egitura hierarkizatua duen erakunde baten artean ezartzen diren komunikazio-egoeretako hizkuntz erabilera biltzen dituen.**
- **Ikaskuntzaren esparrua, bereziki jardun akademikoarekin lotutako gaiei buruzko ezagutzak lortu, garatu edo azaltzeko beharrezko teknikan eta abilezietan oinarritzen dena.**
- **Pertsonen arteko harremanen esparrua, taldean lan egiteko beharrezko komunikazio-gaitasunak garatzeko bidea ematen duena.**
- **Gizarte-komunikabideen esparrua, "informazioaren gizartean" nonahi agertzen diren haien mezuekiko jarrera kritikoa garatzea helburu duena.**

Modulu honetan jorrotutako ikaskuntzak adierazitako arloetan hizkuntzaren erabilera hobetzera eta, horrenbestez, prestakuntzan parte hartzen dutenen komunikazio-gaitasuna garatzera zuzendu behar dira. Aurrekoarekin bat etorritik, egin beharreko lana hizkuntz erabilera desberdinen inguruan egituratu beharko da, ez, ordea, hizkuntz sistemaren ezagutza abstraktuaren inguruan. Hizkuntz erabilera garatzeko, bai ahozko hizkuntza bai idatzizko hizkuntza indartu beharko dira.

Ahozko hizkuntzaren inguruko lana sorkuntzan oinarrituko da batik bat, eta testuak antolatzeke eta horiek komunikazio-egoerara (lexikoa, doinua, keinua...) egokitzeko gaitasuna garatzea izango du helburu.

Esparru akademikoan ematen diren idatzizko testu ohikoenak argumentu eta azalpenekoak dira, eta duten zailtasun bereziagatik trebakuntza berezia eskatzen dute, horiek behar bezala ulertu eta sortu ahal izateko; lanbide-jarduerak garatzea eta partaideak gizarteratzea bultzatuko den moduan.

Modulu hau eskaintzea aurreikusten duen edozein prestakuntza-prozesutarako, haren programazioa jarraian adierazten diren "edukien" irakaskuntzan oinarritu behar da, "ezagutzaren adierazleetan" deskribatzen diren mailarekin eta hedadurarekin. Ezagutzaren adierazleak ebaluazio-irizpideak dira, eduki-multzo bakoitzaren gaitzat eta ereduazko ariketatzat, pertsonak jakin behar duen edo egiten jakin behar duen gauzarik funtsezkoena eta kritikoa aditzera ematea helburu dutenak.



2. EDUKIAK

1. MULTZOA: HIZKUNTZA ERAKUNDE HARREMANETAN (15 ordu)

Prozedurazkoak:

- **Multzoarekin zerikusia duten testuak ulertzea:**
 - Nork bere kasa irakurtzea, informazioa lortzeko eta ikasketetan hobetzeko baliabide gisa.
 - Igorlearen asmoa antzematea.
 - Testua interpretatzea, hura sortzeko baldintza materialen eta harekin batera datozen elementu ez-hizkuntzakoen arabera.
 - Lortu nahi diren helburuen arabera informazioa aukeratu eta tratatzea.
 - Testuaren zatiak eta horien arteko loturak antzematea.
- **Multzoarekin zerikusia duten testuak sortzea:**
 - Esparru akademikoan komunikatzeko, ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzea.
 - Eskemak edo gidoiak eginda, ahozko edo idatzizko testu batean garatu beharreko edukia planifikatzea.
 - Aldez aurretik plangintza egin ondoren, komunikazio-egoerari egokitutako esparruetako testuak, koherenteak, zuzenak eta kanpo-aurkezpen argia eta ordenatua izango dutenak sortzea, bai euskarri analogikoak bai digitalak erabilia.
 - Norberak sortutako testuak betiere ebaluatu eta zuzentzea.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- **Multzoko testu-mota ohikoenak:**
 - Landutako testuetako bakoitzaren komunikazio-egoeraren ezaugarriak:
 - ◆ Komunikazio-egoeraren elementuak eta horiek testuetan duten isla.
 - ◆ Erregistroa.
 - ◆ Modalizazioa.
 - ◆ Gizarte-komunikazioaren arauak (hitz egiteko txandak...).
 - Landutako testuetako bakoitzaren ezaugarri diskurtsiboak:
 - ◆ Testuaren egitura.
 - ◆ Kohesio-prozedurak: gaikako progresioa, korreferentzia, denboren arteko loturak eta lokailuak.
 - ◆ Testuaren ortografia: paragrafokako banaketa.
 - ◆ Elementu grafikoak, ikonikoak eta espazialak.
 - Landutako testuetako bakoitzaren hizkuntz ezaugarriak:
 - ◆ Ezaugarri sintaktikoak.
 - ◆ Ezaugarri morfologikoak.
 - ◆ Ezaugarri lexikoak.
 - ◆ Ezaugarri ortografikoak.

Jarrerazkoak:

- Hizkuntza, lanbide-bizitzako adierazpide eta komunikabide gisa baloratzea.
- Idatzizko testuak menderatzearen garrantzi profesionalaz kontzientzia hartzea.



EZAGUTZAREN ADIERAZLEAK:

- 1.1. *Multzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea.*
- 1.2. *Gizarte esparruarekin lotutako informazio teknikoak aztertzea, inplizitua dena esplizitua denetik bereiziz.*
- 1.3. *Multzo honen berezko testu ahozkoetan eta idatzizkoetan gizarte bizitzarako garrantzizkoak diren informazioak interpretatzea.*
- 1.4. *Multzo honen berezko testuen ezaugarri testuingurukoak, diskurtsiboak eta hizkuntzakoak, eta horien formatua antzematea.*
- 1.5. *Multzo honen berezko idatzizko testu egokiak, koherenteak, kohesiodunak eta zuzenak sortzea.*

2. MULTZOA: HIZKUNTZA IKASKUNTZAN (30 ordu)

Prozedurazkoak:

• Multzoarekin zerikusia duten testuak ulertzea:

- Nork bere kasa irakurtzea, informazioa lortzeko eta norbere hobekuntzarako baliabide gisa.
- Dokumentazio-iturri desberdinak (bibliografiak, Internet, multimedia...) erabiltzea.
- Lortu nahi diren helburuen arabera informazioa aukeratu eta tratatzea.
- Testuen konparazio kritikoa egitea, ikuspegi desberdinetatik.
- Testuak aztertzea, ideiak kokatuz, nagusiak direnak eta bigarren mailakoak bereiziz eta testuan duten bidezketasuna azalduz.
- Testuaren zatiak eta horien arteko loturak antzematea.
- Elementuen arteko loturak eta antolamendu hierarkikoa bistaratu ahal izateko eskemak egitea.
- Ahozko edo idatzizko testuen laburpenak egitea.
- Testuen gaia identifikatzea.

• Multzoarekin zerikusia duten testuak sortzea:

- Idazketa, pentsamendua antolatzeko eratzat erabiltzea.
- Eskemak edo gidoiak eginda, ahozko edo idatzizko testu batean garatu beharreko edukia planifikatzea.
- Aldez aurretik plangintza egin ondoren, komunikazio-egoerari egokitutako esparruetako testuak, koherenteak, zuzenak eta kanpo-aurkezpen argia eta ordenatua izango dutenak sortzea, bai euskarri analogikoak bai digitalak erabilia.
- Norberak sortutako testuak betiere ebaluatu eta zuzentzea.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

• Multzoko testu-mota ohikoenak:

- Landutako testuetako bakoitzaren komunikazio-egoeraren ezaugarriak:
 - ◆ Komunikazio-egoeraren elementuak eta horiek testuetan duten isla.
 - ◆ Erregistroa.
 - ◆ Modalizazioa.
- Landutako testuetako bakoitzaren ezaugarri diskurtsiboak:
 - ◆ Testuaren egitura. Egitura desberdinak.
 - ◆ Kohesio-prozedurak: gaikako progresioa, korreferentzia, denboren arteko loturak eta lokailuak.
 - ◆ Testuaren ortografia: paragrafokako banaketa.
 - ◆ Elementu grafikoak, ikonikoak eta espazialak.
- Landutako testuetako bakoitzaren hizkuntz ezaugarriak:
 - Ezaugarri sintaktikoak.
 - Ezaugarri morfologikoak.



- Ezaugarri lexikoak.
- Ezaugarri ortografikoak.

Jarrerazkoak:

- Hizkuntza, bizitza akademikoan ikasteko baliabide gisa baloratzea.
- Koherentziari, egokitasunari eta zuzentasunari dagokienez, norberak idatzitako testuak gainbegiratzearen garrantzia baloratzea.
- Xede desberdinekin dokumentazio-iturri desberdinak erabiltzearen garrantziaz jabetzea.

EZAGUTZAREN ADIERAZLEAK:

- 2.1. *Esparru akademikorako informazio egokia bilatu eta aukeratzea, teknologia berriak (Internet, multimedia...) erabilia.*
- 2.2. *Esparru akademikorako informazio egokia bilatu eta aukeratzea, informazio-iturri tradizionalak erabilia.*
- 2.3. *Esparru akademikoarekin lotutako informazio-testuetan, ideia nagusiak bigarren mailakoetatik bereiztea.*
- 2.4. *Testuen edukia zehatz jasoko duen laburpena egitea.*
- 2.5. *Testu baten ideiak eskematizatzea, nagusiak direnak bigarren mailakoetatik bereiziz eta horien arteko hierarkia ezarriz.*
- 2.6. *Informazio-testu teknikoak sortzeko informazio garrantzitsua aukeratzea.*
- 2.7. *Testu-mota hauen berezko eskemen arabera ideien banaketa planifikatzea, informazioa koherentziaz antolatuz.*
- 2.8. *Informazioaren balorazioa jasotzen duen testu batean informazio desberdinak berriro lantzea.*
- 2.9. *Hizkuntzaren arauak eta aukeratutako generoaren konbentzio formalak errespetatuz ahozko eta idatzizko testuak sortzea, euskarri desberdinak erabilia.*

3. MULTZOA: HIZKUNTZA GIZARTE KOMUNIKABIDEETAN (30 ordu)

Prozedurazkoak:

- **Multzoarekin zerikusia duten testuak ulertzea:**
 - Nork bere kasa irakurtzea.
 - Igorlearen asmoa antzematea.
 - Testuaren edukiaren azterketa kritikoa.
 - Testuen esanahi inplizitua eta esplizitua antzematea.
 - Testua interpretatzea, harekin batera datozen elementu hizkuntzakoak eta ez-hizkuntzakoak kontuan izanda.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- **Multzoko testu-mota ohikoenak:**
 - Landutako testuetako bakoitzaren komunikazio-egoeraren ezaugarriak:
 - ◆ Komunikazio-egoeraren elementuak eta horiek testuetan duten isla.
 - ◆ Erregistroa.
 - ◆ Modalizazioa.
 - Landutako testuetako bakoitzaren ezaugarri diskurtsiboak:
 - ◆ Testuaren egitura.
 - ◆ Kohesio-prozedurak: gaikako progresioa, korreferentzia, denboren arteko loturak eta lokailuak.
 - ◆ Elementu grafikoak, ikonikoak eta espazialak.



- Landutako testuetako bakoitzaren hizkuntz ezaugarriak:
 - ◆ Ezaugarri sintaktikoak.
 - ◆ Ezaugarri morfologikoak.
 - ◆ Ezaugarri lexikoak.
 - ◆ Ezaugarri ortografikoak.

Jarrerazkoak:

- Gertakari beraren inguruan komunikabideetan ager daitezkeen interpretazio desberdinez kontzientzia hartzea.
- Komunikabideek iritzi-jarraibideak sortzeko garaian duten garrantziaz jabetzea.

EZAGUTZAREN ADIERAZLEAK:

- 3.1. *Multzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea.*
- 3.2. *Komunikabide desberdinetatik datozen testuak aztertzea eta informazioa iritzitik bereiztea.*
- 3.3. *Multzo honen berezko testu ahozkoetan eta idatzizkoetan gizarte bizitzarako eta bizitza akademikorako garrantzizkoak diren informazioak interpretatzea.*
- 3.4. *Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuinguruak, diskurtsiboak eta hizkuntzakoak, eta horien formatua antzematea.*

4. MULTZOA: HIZKUNTZA PERTSONEN ARTEKO HARREMANETAN (15 ordu)

Prozedurazkoak:

- **Multzoarekin zerikusia duten testuak ulertzea:**
 - Bizitza akademiko eta gizarte-bizitzako hizkuntz jokabideak aztertzea.
 - Igorlearen asmoa eta esanahiak testuinguruarekiko duen mendetasuna antzematea.
 - Testua interpretatzea, hura sortzeko baldintza materialen eta harekin batera datozen elementu ez-hizkuntzakoaren arabera.
- **Multzoarekin zerikusia duten testuak sortzea:**
 - Esparru akademikoan komunikatzeko, ahozko eta idatzizko hizkuntza erabiltzea.
 - Eskemak edo gidoiak eginda, ahozko edo idatzizko testu batean garatu beharreko edukia planifikatzea.
 - Aldez aurretik plangintza egin ondoren, komunikazio-egoerari egokitutako esparruetako testuak, koherenteak, zuzenak eta kanpo-aurkezpen argia eta ordenatua izango dutenak sortzea, bai euskarri analogikoak bai digitalak erabilia.
 - Norberak sortutako testuak betiere ebaluatu eta zuzentzea.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- **Multzoko testu-mota ohikoenak:**
 - Landutako testuetako bakoitzaren komunikazio-egoeraren ezaugarriak:
 - ◆ Komunikazio-egoeraren elementuak.
 - ◆ Erregistroa.
 - ◆ Gizarte-komunikazioaren arauak (hitz egiteko txandak...).
 - ◆ Elementu prosodikoak eta keinuzkoak.
 - Landutako testuetako bakoitzaren ezaugarri diskurtsiboak:
 - ◆ Informazio garrantzitsua.
 - ◆ Mundu partekatua.
 - ◆ Testuaren egitura.
 - ◆ Kohesio-prozedurak.
 - Landutako testuetako bakoitzaren hizkuntz ezaugarriak:



- ◆ Ezaugarri sintaktikoak.
- ◆ Ezaugarri morfologikoak.
- ◆ Ezaugarri lexikoak.
- ◆ Ezaugarri ortografikoak.

Jarrerazkoak:

- Gainerakoek adierazitako ideien aurrean jarrera irekia eta errespetuzkoa izatea.
- Bizitza akademikoaren berezko ahozko komunikazio-egoeretan, keinu, gorputz eta doinu bidezko jokabide-arauak errespetatu eta baloratzea.


EZAGUTZAREN ADIERAZLEAK:

- 4.1. *Multzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertu eta sortzea.*
- 4.2. *Beste pertsonetikiko harremanen berezko komunikazio-trukeetan beharrezko baliabideak erabiltzea, batez ere hizkuntzakoak, hartzaileak horien zentzua ulertzea ziurtatuko dutenak: edukia aukeratu eta egituratzea, erregistroa aukeratzea, etab.*
- 4.3. *Hartzaileak mezua jasotzea erraztuko duten komunikazio-estrategiak erabiltzea.*
- 4.4. *Taldekide gisa laneko eztabaidetan bete-betean parte hartzea, gainerakoen iritziekiko errespetuzko eta tolerantziatzko jarrera erakutsiz.*
- 4.5. *Komunikazio-trukean parte hartzen duten kide guztien ekarpenak errespetatzea.*
- 4.6. *Komunikazio-trukean eginkizun desberdinak (hartzailea, igorlea) onartzea, eta gainerako kideek ere horiek onar ditzaten lortzea.*
- 4.7. *Komunikazioa zuzentzen duten arau gizarte-komunikaziokoak eta pragmatikoak erabiltzea.*
- 4.8. *Jardun akademiko eta profesionalaren berezko komunikazio-trukeetan parte hartzea, iritzia adierazteko beharrezkoak diren baliabideak erabiliz.*



EDUKI BLOKEEN EZAGUTZA ADIERAZLEEI DAGOZKIEN ARIKETEN ADIBIDEAK

BLOKEA	EZAGUTZA ADIERAZLEAK	ARIKETAK
1	1.1. Multzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea.	1
	1.2. Gizarte esparruarekin lotutako informazio teknikoak aztertzea, implizitua dena esplizitua denetik bereiziz.	1
	1.3. Multzo honen berezko testu ahozkoetan eta idatzizkoetan gizarte bizitzarako garrantzizkoak diren informazioak interpretatzea.	1
	1.4. Multzo honen berezko testuen ezaugarri testuinguruak, diskurtsiboak eta hizkuntzakoak, eta horien formatua antzematea.	2
	1.5. Multzo honen berezko idatzizko testu egokiak, koherenteak, kohesiodunak eta zuzenak sortzea.	2
2	2.1. Esparru akademikorako informazio egokia bilatu eta aukeratzea, teknologia berriak (Internet, multimedia...) erabilia.	3
	2.2. Esparru akademikorako informazio egokia bilatu eta aukeratzea, informazio-iturri tradizionalak erabilia.	3
	2.3. Esparru akademikoarekin lotutako informazio-testuetan, ideia nagusiak bigarren mailakoetatik bereiztea.	4
	2.4. Testuen edukia zehatz jasoko duen laburpena egitea.	4
	2.5. Testu baten ideiak eskematizatzea, nagusiak direnak bigarren mailakoetatik bereiziz eta horien arteko hierarkia ezarriz.	4
	2.6. Informazio-testu teknikoak sortzeko informazio garrantzitsua aukeratzea.	5
	2.7. Testu-mota hauen berezko eskemen arabera ideien banaketa planifikatzea, informazioa koherentziaz antolatuz.	5
	2.8. Informazioaren balorazioa jasotzen duen testu batean informazio desberdinak berriro lantzea.	5
	2.9. Hizkuntzaren arauak eta aukeratutako generoaren konbentzio formalak errespetatuz ahozko eta idatzizko testuak sortzea, euskarri desberdinak erabilia.	6
3	3.1. Multzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea.	8,9
	3.2. Komunikabide desberdinetatik datozen testuak aztertzea eta informazioa irizitik bereiztea.	7,9
	3.3. Multzo honen berezko testu ahozkoetan eta idatzizkoetan gizarte bizitzarako eta bizitza akademikorako garrantzizkoak diren informazioak interpretatzea.	10,9
	3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuinguruak, diskurtsiboak eta hizkuntzakoak, eta horien formatua antzematea.	9
4	4.1. Multzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertu eta sortzea.	10, 11, 12



4.2. Beste pertsonetik harremanen berezko komunikazio-trukeetan beharrezko baliabideak erabiltzea, batez ere hizkuntzakoak, hartzaileak horien zentzua ulertzea ziurtatuko dutenak: edukia aukeratu eta egituratzea, erregistroa aukeratzea, etab.	11, 12
4.3. Hartzaileak mezua jasotzea erraztuko duten komunikazio-estrategiak erabiltzea.	12
4.4. Taldekide gisa laneko eztabaidetan bete-betean parte hartzea, gainerakoen iritziekiko errespetuzko eta tolerantziatzko jarrera erakutsiz.	12
4.5. Komunikazio-trukean parte hartzen duten kide guztien ekarpenak errespetatzea.	12
4.6. Komunikazio-trukean eginkizun desberdinak (hartzailea, igorlea) onartzea, eta gainerako kideek ere horiek onar ditzaten lortzea.	12
4.7. Komunikazioa zuzentzen duten arau gizarte-komunikaziokoak eta pragmatikoak erabiltzea.	12
4.8. Jardun akademiko eta profesionalaren berezko komunikazio-trukeetan parte hartzea, iritzia adierazteko beharrezkoak diren baliabideak erabiliz.	12



1. Irakurri honako testuak eta atera amankomunean dituzten ezaugarriak honako parametroetan:

- Helburua,
- Erabilera-eremua,
- Igorlea eta hartzailea, eta
- Erabilitako hizkera

1 Testua

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila
EBAZPENA, 2004ko martxoaren 10ekoa, Giza Baliabideen zuzendaria; honen bidez, 2003ko otsailaren 26ko Ebazpenaren bidez (2003ko apirilaren 10eko EHAA, 72 zk.) egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako lan-kontratuko langile finkoen lanpostu batzuk betetzeko, aukeraketako barne prozedurarako deialdia behin betiko ebatzen da.

EBATZI DUT:

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako lan-kontratuko langile finkoen lanpostu batzuk betetzeko, aukeraketako barne prozeduran parte hartu dutenen artean Kalifikazio-epaimahaiak lanpostuak esleitzeko egin duen proposamena behin betiko bilakatzea (1. eranskina).

2.– Prozeduraren ondorioz kontratu-loturan ematen diren aldaketak indarrean sartuko dira, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean.

3.– Lortutako plazei ezin izango zaie uko egin.

4.– Prozedura honen ondorioz, lanpostua esleitzen zaion langileak honakoak bete beharko ditu: Haren kontratua aldatzen den momentutik bi urte pasa arte, ezin izango du Giza Baliabideen Zuzendaritzan kontratu mota aldatzea ahalbidetuko duen prozeduretan parte hartu, hau da, maila igotzea ekarriko duen prozeduretan. Hori nahi izanez gero, kanpokoentzako lehiaketan parte hartu beharko du.

Legeak ezarritako probaldia pasa beharko du hautatutako pertsonak, salbu eta zeregin berberak izan baditu lehenago autonomia erkidegoko administrazioan, edozein modalitatetan.

5.– Esleitutako destinoak borondatezkotzat jotzen dira, horren ondorioz, eta deialdiaren zortzigarren oinarrian xedatutakoaren arabera, aldaketa horiek ez dute inolako kalte-ordainik ordaintzeko eskubidea eragiten.

6.– Ebazpen honek ez du administrazioko bidea amaitzen. Haren aurka, eta lan-auzibidera jo aurretik, erreklamazioa aurkeztu ahalko zaio Giza Baliabideen zuzendariari hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Erreklamazioa ukatu egiten bada, edo hilabetea pasa bada inolako jakinarazpenik jaso gabe, ezetsi dela ulertuko da, eta demanda jartzaileak zerbitzua ematen duen edo helbidea duen tokiko Lan arloko epaitegiaren aurrean —berak aukeratuko du non— inpugnatu ahalko da ebazpena bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso denetik edo ezetsitzat jo behar den egunetik kontatua.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko martxoaren 10a.

Giza Baliabideen zuzendaria, JULIÁN ASURMENDI BARRIO.



2 Testua

Herrizaingo Saila; Industria, Merkataritza eta Turismo Saila; Osasun Saila; Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila

34/2001 DEKRETUA, otsailaren 20koa, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurrien gain eskumena daukaten autonomia erkidegoko organoak zeintzuk diren adierazten duena.

7. artikulua.– Industri Istripu Larrien Prebentziorako Batzordea.

1.– Industri Istripu Larrien Prebentziorako Batzordea sortu da. Kide anitzeko organoa da, eta berak koordinatu eta zainduko du gai arriskutsuak tarteko direnean istripu larrietan sortzen diren arriskuak kontrolatzeko arauen aplikazioa.

2.– Batzorde hori Herrizaingo Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritzari atxikita dago; batzordeburua Larrialdiei Aurre Egiteko zuzendaria da, eta batzordekide bat dago Eusko Jaurlaritzaren jarduera-arlo hauetariko bakoitzeko: herrizaingoa, lurralde antolaketa, osasuna eta industria.

3.– Batzordearen egitekoak:

a) Manuzko txostenak emango ditu, Administrazioak Dekretu honen 2. artikuluko 1. paragrafoko e), f) eta n) idatz-zatietan azaltzen diren erabakiak eta 3. artikuluko 1 paragrafoko c) idatz-zatian azaltzen direnak hartu aurretik.

b) Organo eskudunek eskatuz gero, txostenak egingo ditu, instalazioen barrualdean edo kanpoaldean gertatutako gorabeheren edo larrialdien kausak eta bilakaera azaltzeko eta larrialdiari aurre egiteko nola jokatu den eta zer neurri hartu diren adierazteko.

c) Organo eskudunek eskatuz gero, establezimenduen arriskuei buruzko txostenak egingo ditu, hirigintzan txosten horiek kontuan har daitezzen lurraren erabileraren kalifikazioari buruzko erabakiak hartu behar direnean.

d) Ikuskapenen emaitzei buruzko txostenak igorriko dizkie herri babesaren eta giza osasunerako arriskuen arloko agintari eskudunei, laneko segurtasun eta osasunaren arlokoiei, lurraldearen antolaketa eta hirigintzaren arlokoiei, ingurumenaren arlokoiei eta portuen arlokoiei, baldin eta txostenetan eurentzat interesgarriak izan daitezkeen datuak badaude, neurri egokiak hartu ahal izan ditzaten.

e) Gai arriskutsuak tarteko direnean istripu larrietan sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriei buruzko arauak zenbateraino eta nola betetzen diren ebaluatu eta aztertuko du.

f) Urtero memoria bat egingo du arau horiek Euskadiko Autonomia Erkidegoan urtean zehar zenbateraino eta nola bete diren azaltzeko, eta Euskadiko Herri Babeserako Batzordeari aurkeztuko dio.



2. Aztertu enplegu-eskaintzak biltzen dituen orrialdea egunkari batean, bat aukeratu eta erantzuna idatzi gutun batean. Enplegu-eskaintzari erantzun gutuna idatzi ondoren eta binaka bilduta, konparatu idatzitako gutuna ondoan eredu gisa jartzen denarekin. Konparaketarako erabili gutunaren ostean eskeintzen den taulako irizpideak. Behin analisia amaituta, talde handian hitzegingo da mota honetako testuetan azaltzen diren ohiko arazoetaz.

Ariketa bukatzeko azken gutuna idatziko da. Horretarako honako urratsak segitu:

- Aukeratu gutunaren edukia
- Testuaren xedearekin bat datorren erregistroa aukeratu.
- Idatzi zirriborroa
- Zirriborroa aztertu
- Behin betiko testua idatzi. Kontutan hartu gutunaren ezaugarri formalak.

Enplegua eskatzeko gutunaren eredu

DATA	Bilbon, 2004ko maiatzaren 31n
AGURRA	Jaun-andre agurgarriak:
GORPUTZA	<p>Prentsan irakurri dut zuen enpresaren iragarkia, Bizkaian egiten diren obretan lan egiteko soldadoreak behar direla esaten duena, eta lanpostu horretarako behar diren baldintzak betetzen ditudala uste dudanez zuei idaztea erabaki dut.</p> <p>Gutun honekin batera bidaltzen dizuet nire "curriculum vitae"-a, zeinetan frogatuta geratzen baita eskatzen duzuen titulua dudala eta antzerako lanetan bi urteko esperientzia dudala.</p> <p>Eskaera hau kontutan hartuko duzuelakoan eta zuen erantzunaren zain, har ezazue nire agurrik zintzoena.</p>
ZINADURA	Fernando Urionabarrena

Hasierako gutunaren analisirako irizpideak

<ul style="list-style-type: none">- Gutunaren atal guztiak agertzen al dira?- Egokia al da atalen distribuzioa orrian?- Zenbat paragrafo erabili da?- Hasierako agurra eta azken agurrarako formulak ereduaren antzerakoak al dira ala hurbilagoak?- Azaltzen al da gutunaren hasieran gutunaren zergatia?- Ematen al dira arrazoiak gutuna erantzuna izateko?- Bapatean al dator azken agurra?- Zein da erabiltzen den tratua? Hikakoa, zukakoa, berorikakoa?- Aukeratutako tratamendua mantentzen al da gutun osoan zehar?	
--	--



3. Jende guztiarentzat interesekoa den gai bati buruzko informazioa bilatu. Adibidez, “planetaren beroketa globala” edo “komunikazioen iraultza”. Bilaketan, honako baliabideak erabili:

- “Google” bilatzailea. “Bilaketa aurreratua” eta “Gida” izeneko erremintak erabili.
- Liburutegian gaiarekin zerikusia duten CD-ROM-ak.
- Egunkari digital baten hemeroteca. Erabili egunkari horretako bilaketarako aukerak.
- Liburutegiko katalogoa, bilatzeko gaiarekin erlazionatutako liburuak.

4. Irakurri testuak arretaz eta testuen ostean proposatzen diren atazak burutu

1 Testua



tsunamien indar harrigarria



Asia hegoaldean gertatutako lurrikarek 9.0 graduko indarra izan zuten Richter eskalan, Hiroshiman jaurtikitako bonba atomikoak baino mila aldiz gehiago, hain zuzen.

Lurrikaren ondorioz sortutako tsunamiek, milaka hildako eragin zituzten Indian, Sri Lankan, Indonesian eta Somalian, lurrikararen epizentrotik 4.100 km ingurura. Hala ere, zer dira zehatz-mehatz tsunami delako horiek?

Tsunamiak lurrikara baten ondorioz sortutako itsas uhin erraldoia da. Tsunamiak kalte handiak sortzen ditu, itsaspeko lurrikarak gertatzen diren lekuetan, batez ere. Itsaso zabalean, uhinaren garaiera ez da metro batera heltzen, baina luzera -15 bat kilometro-

eta abiadura -640-960 km/orduko-izugarriak dira.

Tsunamiak iragartzea gauza zaila izaten da, itsaso zabalean olatuek altuera txikia izan ohi dutelako. Kostaldera hurbiltzen direnean, aldiz, erraldoi bihurtzen dira olatu hauek. Arazoari aurre egiteko, zientzialari japoniarrek GPS sistema erabili nahi dute. Hain zuzen, japoniarrek buiak jarriko dituzte Ozeano Barean, mugimendu bertikalari buruzko informazioa jasotzeko. Buia bakoitzak GPS hargailua eta irrati-transistorea izango ditu, eta Tokioko Unibertsitateak egingo du buietatik iristen den informazioaren jarraipena. Egia esan, oso ideia ona da, tsunamiak igartzea gauza garrantzitsua da eta.

2 testua

Tsunamiak izan eta gero, zer?


2005/02/06 | Galarraga, Ana |

Zer egin bizirik atera direnei laguntzeko? Nola banatu diru-laguntza? Zerk du lehentasuna? Zer egin eremua lehenbailehen leheneratzeko? Nondik hasi? Galdera horiei erantzutea ez da inondik inora erraza, eta tsunamiak hondatutako lurraldeetako agintariak ahal dutena egiten ari dira. Hainbat erakunderen laguntza dute, tartean FAOrena. Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundea da FAO, eta, hasteko, bizirik gelditu direnen elikadurari eta hango ekosistemei jarri die arreta, besteak beste

Asiako hegoaldean zurrumurru bat zabaldu da. Agidanez, ez da komeri tsunamiak jotako lekuetako arraina jatea. Arraina kutsatuta omen dago. Nonbait, oso arriskutsua da arraina jatea; izan ere, gorpu ugari eraman zituen urak, eta gorpu horietatik elikatutako arrainek gaixotasunak kutsa ditzaketela uste dute. Okerrena da zurrumurruek kalte larriak sortu dituela, horren ondorioz arrainaren kontsumoa jaitsi egin baita.

Zurrumurrua zenbateraino den egia jakiteko, FAOk berehala aztertu ditu inguru haietako arrain eta itsaski jangarriak, eta, azkenean, adierazi du zurrumurruek ez duela oinarri sendorik. Prentsa-ohar baten bidez zabaldu ditu ikerketen emaitzak, eta hango agintariei ere jakinarazi die arraina edo itsaskia jateak ez dakarrela inolako arriskurik osasunerako.

Aldiz, arraina jateari uztea benetan kaltegarria da, herrialde horietako dietan arraina oinarri-oinarrizkoa baita. Hain zuzen ere, munduan arrain gehien jaten den lurraldea tsunamiak jotako horixe da. Gainera, hondamenditik bizirik atera direnak oso ahulduta daude; beraz, behar-beharrezkoa dute arraina jatea ondo



elikatuta egoteko eta aurrera ateratzeko aukera izateko.

Indonesian eta Sri Lankan pertsona bakoitzak urtean 21 kg arrain jaten ditu batez beste, eta Maldivetan ia 200 kg-ra iristen da kontsumoa. Indiako kostaldean ere arrain-kontsumoa oso altua da. Horregatik jarraitu behar dute arraina jaten; bestela, ez dute beste ezer jateko. Hori bai, arrainak eta itsaskiek egoera onean egon behar dutela eta erraiak kenduta eta ondo egosita jan behar direla ohartarazi du FAOk.

Nolanahi ere, arrain-haztegietan arrisku bat badagoela onartu du FAOk. Kontua da tsunamiak kalteak eragin zituela ur-horniduran eta estolderia-sisteman. Beraz, ez da harrizkoa hainbat hondakin-ur haztegietara iragaztea. Ondorioz, arrainek birusek, bakterioek edo bizkarroiek eragindako infekzioak izan ditzakete, eta arraina gordinik edo gutxi eginda jaten dutenek gaixotzeko arriskua dute. Itxura oneko arraina, eta ondo garbituta eta ondo eginda, jaten dutenek, berriz, ez dute arriskurik.

Toxinak ere, kezka-iturri

Bestetik, urak nahasten direnean, litekeena da alga toxikoak ugaltzea eta marea gorriak sortzea. Marea gorriak oso kaltegarriak dira; izan ere, alga toxikoak jaten dituzten arrainak hiltzen dituzte, eta, denak hiltzen ez badira ere, toxinak metatu egiten dira, bai arrainetan, bai itsaskietan, baina batez ere moluskuetan. Hortaz, norbaitek horrelakorik jaten badu, intoxikatzeko arrisku handia dauka. Toxina horiek ikaragarri bortitzak dira, eta gaixotasun benetan larriak sortzen dituzte. Heriotza ere eragin dezakete.

Oraingoan, ordea, ez dago hori gertatzeko arriskurik. FAOren esanean, orain dagoen eguraldia ez da batere egokia algak ugaltzeko. Izan ere, euriteen eta tenperatura hotzen sasoian daude; hori dela eta, ez dute uste biotoxinak arazo izango direnik.

Bestelako toxinak ere egoten dira uretan, adibidez, mineral astunak. Baina horiekin ere arazorik ez dela egongo uste du FAOk, ez baitirudi tsunamiak urak nahastean arraina kutsatzeko adina gai kimiko natural askatutako zenik.

Mangladiak leheneratzeko beharra

Elikagaien segurtasunaz gain, mangladiak ere FAOren lehentasunen artean daude. Hain zuzen ere, mangladiak leheneratzeak asko lagunduko luke hondamendia gainditzeko. Alabaina, FAOren ustez, kontu handiz egin behar dira mangladiak landatzeko programak.

Mangladiak 15 milioi hektarea inguru hartzen dituzte mundu osoan, eta horien % 40 tsunamiak hondatutako eremuetan zeuden. Hango bizimodurako, mangladiak ezinbestekoak dira. Zura, sutarako abarrak eta etxeak egiteko materialak lortzen dituzte mangladietatik, eta, zeharka, arrainei eta itsaskiei babesa eta jana ematen diete. Hortaz, arrantzarako toki egokiak dira. Halaber, olatu handietatik babesten dute kostak.

Mangladiak oso aberatsak eta baliagarriak diren arren, ezin dira edozein tokitan landatu. FAOren ustez, leheneratzeko programek kostak osotasunean hartu behar



dute kontuan; bestela, dotokek arrautzak jartzen dituzten tokiak edo algen ohantzeak kaltetzeko arriskua dago.

Dena dela, gauza bat argi dago: zura behar-beharrezkoa dute etxeak berreraikitzeke, azpiegiturak egiteke, itsasontziak eta txalupak konpontzeke eta berriak egiteke, eta baita sutarako ere. FAOkoak horretaz jabetzen dira, baina beldur dira mangladietan presio are handiagoa ezarriko duela behar horrek. Gaurko ogia, biharko gosea? Ez da erraza asmatzea, baina horretarako ari dira lanean.

- a. Azpimarratu testua eta bereiztu berorren ulermenerako ezinbestekoa ez den informazioa.
- b. Atera pasarte bakoitzaren ideia nagusia esaldi nominal baten bidez.
- c. Elaboratu testuko ideien antolaketa eta egitura isladatzen dituen zenbakizko eskema bat.
- d. Idatzi testuko edukiaren funtsa bil dezan laburpena. Ekidin itzazu testuari buruzko iritziak eta balorazioak.

5. Telebista digitala eta telebista analogikoaren abantaila eta desabantaileri buruzko txostena egin. Horretarako, honako urratsak segitu:

- Bilatu telebista digitala eta telebista analogikoaren ezaugarriei buruzko informazioa hedabideetan.
- Irakurri eta aukeratu gure helburuetarako beharrezko eta garrantzizko informazioa.
- Egituratu informazioa konparaketa oinarri duen azalpenezko eskema baten bidez, zinetan telebista-mota bien ezaugarriak aurrez aurre jartzen diren.

Sarrera

Telebista analogikoa

1 ezaugarria

2 ezaugarria

3 ezaugarria

Telebista digitala

1 ezaugarria

2 ezaugarria

3 ezaugarria

- Gehitu azken pasarte telebista digitalaren aldeko iritzi pertsonala emateko. Aurkeztu bi edo hiru arrazoi.

6. Azalpenezko testua egin. Testua, informazio eta komunikazioaren teknologia berrien gaineko ikerketa lantxo baten emaitza izango da. Informazioa bilatu, aukeratu eta antolatu, gero idatzi eta modu koherente eta egokian aurkeztu ahal izateko. Horretarako azalpenezko egituretako bat erabili.



Gidoi honek markatuko du lana burutzeko urratsak. Bere luzera bi edo hiru orrialdekoa izango da.

LANERAKO GIDOIA

1. Aukeratu gaia eta argi definitu gaiak dakizuena eta bilatu behar duzuenak.
2. Planifikatu lana.
 - Informazioaren bilaketa (liburutegiak, hiztegia, aldizkariak...). gutxienez hiru
 - informazio-iturri erabili.
 - Informazioaren irakurketa eta bilaketa
 - Informazioaren aukeraketa
3. Antolatu informazioa:
 - 3.1. Aukeratu testu-eskemarik egokiena mezuren garapenerako.
 - 3.2. Komunikazio-egoera
 - lgorlea: gizarte-papera
 - Hartzailea: gizarte-papera
 - Erabilera-eremua
 - Helburua
 - 3.3. hizkeraren erabilerari buruzko erabakiak
 - Komunikazio-egoera honetarako hizkuntza-marka egokiak.
 - Testuaren egiturarako egokiak diren kohesio-elementuak.
 - Prozedura lexikoak.
 - Esaldi-egitura eta erregistro formalaren aukeraketa.
4. Testuaren erredakzioa:
 - 4.1. Zirriborroaren erredakzioa eta beronen azterketa “3” ataleko erabakiekin bat datozela ziurtatzeko.
 - 4.2. Azken erredakzioa. Kontutan hartu paginazioa, ortografia, marjinak...
 - 4.3. Aurkezpen egokia. Honakoak izan behar ditu: portada, gai-zerrenda, lanaren enborra, Bibliografia eta kontraportada
7. **Honako testu periodistikoak irakurri, eta bi zutabetan jarri, zutabe batean izaera informatibo hutsa dutenak, eta bestean iritzi edo interpretazioren bat agerrarazten dutenak. Egiten den sailkapenerako arrazoiak eman.**

KONPONBIDE BILA

Eusko Jaurlaritzaren Droga Gaietarako Zuzendaritzak jakitera eman duenez, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 14 eta 19 urte bitarteko gazteen artean ia hirutik batek gehiegizko alkohol kontsumoa egiten dute asteburuan

Gorka Quevedo - DONOSTIA

«Agerikoa da gazte ugari asteburuetan egiten duten gehiegizko alkohol kontsumoa arazo larria dela, eta arazo hori gure artean dagoela. Horregatik jarri dugu arazo horri aurre egiteko plana». Hala mintzatu zen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako sailburu Javier Madrazo adingabeen gehiegizko alkohol kontsumoari lotutako arazoei aurre egiteko Eusko Jaurlaritzak garatu duen planaren aurkezpenean. Izan ere, Droga Gaietarako Zuzendaritzak eginiko ikerketak ondorioztatzen duenez, azken hamar urteetan aldatu egin dira gazteek alkohola kontsumitzeko dituzten moduak.

«Gazteek alkoholik edan gabe bizitzaz gozatzeko aukera izatea nahi dugu», dio Madrazok. Arazoari aurre egiteko gako prebentzioa dela uste du. «Prebentzioa da kontuan hartu



beharreko lehen faktorea. Esperientziak argi uzten du errepresioan eta debekuan oinarritutako legeek porrot egiten dutela».

Gazteak gero eta lehenago hasten dira edaten

Drogamendekotasunen Euskal Behatokiak burututako txostenaren datuak«kezkarriak» direla dio Madrazok. Ikerketaren arabera, gazteak gero eta lehenago hasten dira edaten. Gainera, emakumezkoak gero eta gehiago sartzen dira kontsumoguneetan. «Neurri onargarriak planteatuko badira, ezinbestekoa da arazoak zerikusia duen eragile bakoitza eta bere beharrianak kontuan hartzea».

Ikerketa gehienek datuak izaten dituzte oinarri gisa. Kontuak kontu, datuak ez zaizkio hain garrantzitsuak iruditzen Igor Zurutuza gizarte hezitzaileari. «Datuak ez zaizkit funtsezkoak iruditzen. Gazteek beti edan dute, eta etorkizunean ere edaten jarraituko dute. Arazoari aurre egiteko erantzuna ezin da debekua izan; arazoaren aurrean komunitate gisa zer jarrera hartzen dugun garrantzitsuagoa da. Arriskua murriztea izan behar luke helburua. Gazteari tresnak eman behar zaizkio kontsumo osasuntsuagoa egiteko, norbera bere buruaren jabe den aldetik, kontsumoaren neurria bakoitzaren arabera izateko. Gakoa kontsumoarekiko zein jokabide hartzen dugun da».Arazoari benetako konponbidea bilatzeko borondatea badago, gizarte eragile guztien parte- hartzea ezinbestekoa dela uste du Zurutuza. «Udalek alde bateko erabakiak hartzen dituzte maiz; hori horrela den kasu gehienetan porrot egiten dute hartzen dituzten neurriek. Arazoari aurre egiteko filosofia aurrerakoi bat behar dugu, parte -hartzailea. Herriko gizarte eragileak kanpoan uzten badira, ez da ezer lortuko».Zurutuza bat dator debekuen politika eraginkorra ez dela uste duten pertsonekin. «Gazteei alkoholaren kontsumoa debekatzea ez da irtenbidea; era horretako politikekin ez goaz inora. Guztien ardurua da gazteen etorkizuna».

“Berria”-tik hartua

Langile bat hil da Urnietan, aldamiotik erorita

ERREDAKZIOA

Eraikuntzako langile bat hil zen atzo goizean Urnietan, aldamiotik erorita. Goizeko hamarrak inguruan izan zen istripua, eta langilea, sei metroko alturan zegoen aldamiotik jausi zen. Erortzerakoan, ondoan zeuden burdinak jo zituen.

Istripua, Urnieta herriko Idiazabal kalean izan zen. Ertzaintzak jakinarazi zuenez, langilea unena bertan hil zen, erori ondoren hartu zuen kolpearekin. Lan istripua gertatu bezain pronto, Osalanek teknikari bat bidali zuen Urnietara ezbeharraren inguruko ikerketa hasteko. Hala, istripuaren arrazoiak aztertu ondoren, txostena idatziko dutela eta goitik behera aztertuko dutela azaldu zuen Osalanek.

Aberri berria II

Aberri berria ez dun Obaba. Aberri berria ez dun Arralde. Benetakoa dun aberri berria, Jota, eta aldatu egiten dun, benetakoa den guztia aldatzen den moduan.

Lau bat urtetik behin baditun hauteskundeak, eta baditun irabazleak. Lau bat urtetik behin aukeratzen ditinagu agintariak. Eta beti berdinak. Jendeak lan egiten din, etxea erosteko, zorrak ordaintzeko, umeak hazteko, oporretara joateko, eta baita bere heriotzako orduan ezer falta ez dakion ere; ondo bizi ahal izateko, jendeak lan egiten din. Lan egiten dinagu. Ez zaigun lau bat urtetik behineko boza eta urteroko zergak ordaintzeko besterik eskatzen. Harrituta bezala begiratzen zionagu bizitzari: aukeratu ditugun eta aukeratu ez ditugun



agintarien erabakiak entzuten ditinagu egunero.

Arteari eta Kulturari gabe Turismoari eta Ekonomiari begirako museo bat eraikitzen diten, dirutza (publiko) ederrak gastatuz, aurrera doan herriaren irudia emateko.

Urtegiak egiten dituzten interes orokorraren izenean. Herriak urperatzen aitzinamenduaren izenean. Izua hedatzen saiatzen ditun, 50 urteko atzerapenaren kontuarekin, eta publizitate ankerra egiten diten Abertzale Handikientzako Trena onar dezagun geure desioen kutxan, edo beste edozein bankutan. Merkataritza Gune erraldoiak eraikitzen ditun, gure erosotasunaren mesedetan. Futbol Zelaiak handitzeko proiektuak egiten ditun non entretenitu izan dezagun igande arratsalde luzeetan. Baina benetakoa dun aberri berria, Jota, eta proiektu horiekin guztiekin liluratzen gaituzten bitartean, langileak oraindik hiltzen ditun lanean. Zarratu egiten ditun irakurri nahi ez diren egunkariak, eta babesgabe sentitzen gaitun. Legez kanpoko bihurtzen ditun ideiak, eta ahazten ditinagu ideiak eta ideia horiek gugan izan duten eragina. Baina erraz moldatzen gaitun egoera berrietara. Orain beste zerbait nahi dinagu. Lasaiagoa, erosoagoa. Izutu egiten gaitun eta ez dinagu arazorik bilatu nahi, lehendik dauzkagunez gain. Eta gogoz kontra bada ere sartzen gaitun zurrunbilo eroan, eta gogortu egiten gaitun, eta armairua gero eta beteago dinagu moztuz, eta irribarre postizoz, eta honek ez zeukan gelditzeko itxurarik, Jota. Benetakoa dun aberri berria. Eta aldatzen ari dun. Ez daukan izenei erreparatu besterik: Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao Exhibition Center, Euskalduna Jauregia, Gipuzkoarena, Baluarte. Haindikien poetika itsusiak sortutako mundu erosoan bizi gaitun, beharrezko ditugula sinetsarazi ostean.

Benetakoa dun aberri berria, gezurra dirudien arren.

"Berria"-tik hartua

Gurasoek 1.500 euro ordainduko dituzte eskola materialean

Kontsumitzaileen elkarteek diote iaz baino %6,7 garestiagoa dela umeak eskolatzea

Asier Iturriagaetxebarria

Laster hasiko den ikasturtean, bateaz beste 1.300 eta 1.500 euro bitartean ordaindu beharko dute seme-alaba bakoitzeko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako gurasoek. Horixe da Euskal Herriko Kontsumitzaileen Elkarteak (EKA) eta Euskadiko Kontsumitzaileen Batasunak (EKB) egindako azterketaren ondorioa. Hau da, iaz baino %6,7 gehiago ordaindu beharko dute gurasoek. Halaber, kontsumitzaileen eskubideen defentsarako bi elkateek azpimarratu dutenez, 1997. urtean ume bakoitzeko gastua 491 eurokoa zen. 2003-2004 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako haur bakoitzak 1.326 euroko gastua eragingo du ikasliburu, material, garraio eta bestelako zerbitzuengatik. Bigarren Hezkuntzako ikasle bakoitzeko gastua, berriz, 1.500 eurokoa izango omen da.

EKAko ordezkari Berta Garciak atzo azaldu zuenez, ikasliburuaren garestitzeak eragin du hazkunde hori. Azterketa egiteko, Bizkaiko eta Gipuzkoako bot liburu-denda eta Arabako hiru begiratu dituzte EKAK eta EKBk. Hala, eskolarako materiala saltzen duten ikastetxeak ez dituzte sartu azterketan. «Kontsumo Prezioen Indizeak baino nabarmen gehiago igo dira



behar badiegu, nola esan ahal diegu liburuak erabili ostean botatzeko?», galdetu zuen. Era berean, urtero liburu berriak erosteko premiaren atzean argitaletxeen interesak daudela esan zuen.

Ikasliburuenei beste gastu batzuk gehitu behar zaizkie: materiala (45-70 euro), motxila (33-48 euro), garraioa (432 euro) eta jantokia (500-770 euro).

Beharpenak aprobetxatzeko gomendioa

Orain dela bi urtetik hona, liburu dendek %25eko beharpenak egin ditzakete ikasliburuetan. EKAK eta EKBk beharpenak aprobetxatzeko gomendatu zieten kontsumitzaileei. Hala ere, ikasliburuen etiketak egoera onean egon behar dutela gogoratu zien gurasoei, legeak dioelako eskubide hori daukatela kontsumitzaileek. «Beharpenen inguruan egiten duten publizitatea egiazkoa den jakin dezakegu horrela», esan zuen Garciak

Horren harira, egiten dituzten eskaintzen gardentasunean liburu denda askok oztopo asko jartzen dituztela azpimarratu zuen EKAKo ordezkariak. Hori dela eta, liburu denda bat baino gehiago bisitatu eta salneurriak alderatzeko gomendatu zuen.

“Berria”-tik hartua

Frantziako lege berriak legeak urratzea ekarri du

Immigrazioa arautzeko Sarkozyk ezarritako legearen ondorio latzak azaldu ditu Cimadek, Hendaiaiko atxilotze eremuko datuak emanez

AITOR RENTERIA - BAIONA

Immigrazioa arautzeko Sarkozyk indarrean ezarri duen lege berriak lege urraketara daramala salatu du Cimadek, atxilotze eremuetako pertsonen laguntza ematen dien elkarteak. Legea joan den azaroan bozkatu zuten Parisen, eta geroztik Hendaiaiko atxilotze eremuan diren pertsonen kopurua %30 hazi dela salatzen du Christophe Piedra Cimadeko arduradunak. 2003an 560 etorkin atxiki dituzte Hendaiaiko atxilotze eremuan.

Alabaina, Sarkozyk iragarritako emaitzak lortzeko legeak usuegi urratzen direla nabarmendu du Cimadek.

M.L.-ren kasua

Joan den asteartean M.L. etorkin ginearra atxilotu zuen Frantziako poliziak eta Hendaiaiko eremura eraman. Sei urte bete dira M.L. etorkina Europara sartu zenetik. Geroztik, familia osatu du. Frantziako estatuan jaiotako haurra dauka, 10 hilebetekoa. Bere neskalaguna Sierra Leonakoa da eta babes politikoa dauka Frantzian. Haurdun dago berriz, eta ekainerako espero du haurride berria.

Pirinio Atlantikoetako Prefeturak etorkina bere sorterrira itzularazteko agindua eman zuen. Cimadek helegitea ezarri zuen Paueko Auzitegian. Azken horrek, joan den ostiralean aztertu zuen kasua, eta Prefeturaren ebazpenak legea urratzen duela erabaki zuen. Erabaki horren ondoren, Prefeturak etorkinaren egoera bideratu beharko du, behar diren agiriak emanez. Joan den abenduan ere gisa bereko erabakia hartu zuen Baionako Auzitegiak. Kasu horretan, Baionako Suprefeturak Kongoko etorkin bati mugaratze agindua eman zion. Sorterrira itzultzeko hegazkinera sartzera zihoazelarik, erabakia ez zuela onartzen jakinarazi zien polizia kongoarrak, eta Baionako Auzitegira eraman zuten. Kanporaketa lege kontrakoa zela ebatzi zuen auzitegi horrek eta bertan behera utzi zuen afera.



Obsesioak eta lege hausteak

«Horrelako aginduak hartuz, Baionako Suprefeturak eta Paueko Prefeturak argi erakusten dute ezin diotela eutsi Barne Ministerioak iragarritako kopuruak betetzeko obsesioari, eta legea urratzeraino eraman ditu horrek» dio Piedrak. Legea urratzeko saiakerak salatu ditu Cimadekoak, etorkinen eskubideak zangopilatzen direlako. Gainera, arreta zorrotzuko dutela jakinarazi du.

«Etorkin kopuruak apalarazi nahi dituen legea gogortu bada ere, dagoeneko argi erran genezake ez duela egoera zuzenduko ez eta etorkinei hona jiteko gogoa kenduko ere. Ez du eraginkortasunik ukanen, errepresioa areagotzea ez baldin bada», gaineratu du Piedrak. Cimaderen iritziz inmigrazioa ez da hesiak altxatuz eta hegazkin gehiago ezarriz kudeatzen.

”Berria”-tik hartua



Agur Europari

Talde nafarrak ezin izan zuen gaintitu Bartzelonak Palaun lortutako sei goleko alde handia

irene arrizurieta - IRUÑEA

Portlandek agur esan zion Txapeldunen Ligan jarraitzeko ametsari. Bartzelonak bere etxean lortutako sei goleko alde ezin izan zuen gaintitu atzo Arrosadiko pabiloian jokatu zuen final-zortzirenetako itzulerakoan. 30-24 irabazi zuen talde nafarrak, eta gol bakarra falta izan zitzaion Europan segitzeko. Hala ere, aurkariak baino hobeto jokatu zuen Portlandek.

Bi taldeak jokoan asko zutela adierazi zuten partidaren lehen minutuetan. Urduri atera ziren kantxara, baloia erraz galtzen zuten, eta behartu gabeko hutsfranko egin zituzten. Portland izan zen gola sartzen lehena, baina kostata, Bartzelonak oso defenza itxia egiten zuelako, zirrikiturik utzi gabe. Hala ere, katalanek ez zuten Kasperren atea laugarren minutura arte zulatu. Bi taldeak parekatuta hasi ziren markagailuan, baina hamargarren minutuan Portlandek 7 eta 4ko partziala lortu zuen, Alberto Martinek hirugarren gola lortzeaz bat. Orduetik, eta lehenengo zatiko azken minutuak iritsi arte, Portlandek hiru goleko aldeari eutsi zion. Aitzitik, azken minutuetan Bartzelonak Iker Romero gasteiztarraren abilezia eta indarra baliatuz, markagailuan alde gutxitu zuen eta lehenengo zatia 15-13 bukatu zen.

Bigarren zatian Portland gogotsu atera zen erasora, eta Albert Rocasek 17-13koa egin zuen. Defenza gogorra egiten ari ziren nafarrak, Romerori ongi eutsiz. Gainera, kontraeraso azkarretan asmatzen ari zen Portland, eta partida amaitzeko 18 minutu falta zirela sei goleko alde lortu zuen Jorgenseni esker, eta markagailua 21-15 jarri. Bartzelonako jokalaririk hoberena, Romero, nekatuta zebilen, ezinean, eta Bartzelona nora gabe. Nafarrek aukera baliatu zuten, eta Lubejek lortu zuen zazpi goleko alde. Markagailua 24-17koa zen. Portlandek Europan jarraitzeko ametsa eskuetan zuen, baina Bartzelonak kontraerasoan alde gutxitu zuen. Gainera, Kasper bi minutuz kaleratu egin zuten partida bukatzeko 14 minutu falta zirela. Bartzelonak berriro alde lau golera jaitsi zuen, Romerori esker beste behin. Partida bukatzeko 11 minutu falta zirenean, markagailua 26-21 zen.

Eromena hondarrean

Azken bost minutuak eromena izan ziren. Garraldak 28-23koa jarri zuen markagailuan, baina Romerok golak sartzen segitzen zuen. Hiru minutu falta zirenean, Rocasek 29. gola sartu zuen, baina Richardsoni falta adierazi zioten erasoan. Partida bukatzeko minutua falta zela, Rocasek gola sartu zuen eta markagailua 30-24 geratu zen. 26 segundo falta zirela ekin zion Portlandek azken erasoari, baina Barrouquet atezainak Mateo Garraldaren azken jaurtiketa gelditu egin zuen.

INFORMATIBOAK	IRITZIZKOAK	ARRAZOIAK



8. Iharduera honetan “Agur Europari” izeneko testuan zentratuko gara.

- Hasteko, artikulua irakurri arretaz, eta gero, pasarte bakoitzeko informazio inportanteena atera.
- Zein da testu honen asmoa? Arrazoitu nola heldu zareten ondorio horretara.
- Testuan autorearen zenbait balorazio agertzen dira, hala nola: “aurkariak baino hobeto jokatu zuen”, “behartu gabeko huts franko”, “abilezia eta indarra baliatuz”, ...
- Bilatu eta azpimarratu artikuluan testuari subjektibitatea ematen dizkioten eta autorearen inplikazioa adierazten dituzten hitzak eta espresioak.

9. Ekarki ikasgelara komunikabide ezberdinetatik ateratako zenbait erreportaia mota honetako analisisa egiteko. Analisisa egiteko, hedabideetako ezaugarri kontestual, diskurtsibo eta hizkerazkoak biltzen dituen teoriatzko liburuaz (test liburua edo) baliatuko da.

10. Ondoko testuan, prentsan agertutako lan-gatazka egoera azaltzen da. Irakurri eta gero, enuntziatu gatazka hori konpontzeko bi era kontrajarriak.

Alitalia porrot egiteko arriskuan da, lan gatazka amaitu ezean

EasyJetek prezio txikien lehiari egotzi dio galera handiak pilatu izana

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Zuzendaritzak eta sindikatuek lan gatazkari berehala irtenbidea aurkitu ezean, Alitalia porrot egiteko arrisku bizian dela ohartarazi zuen atzo Italiako Gobernuak. Ordu oro 50.000 euro galtzen ari da Italiako aire konpainia nagusia, eta 200 milioi euro baizik ez zaizkio geratzen kutxetan.

«Alitalia salba daiteke, baina porrot ere egin dezake», ziurtatu zuen atzo Rocco Buttiglione, negoziazioetan parte hartzen ari den Europako Gaietarako ministroak. Estatuak akzioen %62 bere esku ditu. Adierazpen horiekin sindikatuak presionatu nahi zituen Gobernuak batik bat, bere iritziz ezinbestekoak diren kaleratzeak oztopatzen dituelako. Alitaliako 21.000 langileetatik %16 kaleratzeko plana aurkeztu du zuzendaritzak. Sindikatuek, berriz, greba eginez erantzun diote eta 200 milioi euro aurrezteko plan alternatiboa aurkeztu dute. Alitaliaren akzioak kotizaziotik atera zituzten atzo Milango Burtsan, bat-batean %15 amildu ondoren. Baina betiko aire konpainiak ez dira arazoak dituzten bakarrak. Kostu txikiko Europako bigarren enpresa handienak, EasyJet britainiarrak, 40 milioi euroko galerak iragarri zituen atzo azken sei hilabeteetarako. Lehiakideen prezio «txikiegi» eta «irrealistei» egotzi zien erantzukizuna. Burtsan %20 egin zuen behera EasyJetek.

”Berria”-tik

hartua

11. Aurreko atazeko proposamenetako bat aukeratu eta bilatu haren aldeko argudioak. Gero, gauza bera egin beste proposamenarekin. Saiatu kasu bakoitzean erabiltzen diren argudioak mota diferentekoak izan daitezen (autoritatea, norbere esperientzia, ...)



12. Aurreko atazeko hausnarketa egin ondoren, parte hartuko dute ikasleek “lan-gatazken konponbideak” gaiaren inguruko eztabaidan.

Banatuko dugu klasea bi taldetan, eta talde bakoitzak tesi ezberdinen alde argudiatuko du.

Denen artean aukeratuko da moderatzaile bat, eta talde bakoitzak bere bozeramalea; gainerakoek eztabaidan hartuko dute parte eta ondorioak aterako dituzte.

Horrez gainera, izendatuko da pertsonaren bat behatzailearen papera egiteko.

Ezinbestekoa da taldeak defendatuko duen tesiaren aldeko argudioak elaboratzea eztabaida hasi baino lehen.

Argudioen baliagarritasunaz gain, behatzaileek egiaztatu beharko dute bozeramaleek arau soziokomunikatiboak betetzen dituzten. Taldearen ikuspuntuak biltzeko, komeni da behaketa-fitxa egokia erabiltzea.

KONTROL ORRIA

A) PLANIFIKAZIOA


- Aukeratu zuen argudio-ildoak, zerbaiten alde edo kontra, ...
- Hartu kontutan defendatuko duzuen iritzia pertsonala den edo talde bat ordezkatzeko duzuen
- Pentsatu nori zuzentzen zatzaizkieten.
- Idatzi esaldi labur batez zuen tesia.
- Bilatu antzerako garrantzia duten bi edo hiru argudio, eta mailakatu itzazue.

B) HASIERAKO ERREDAKZIOA

- Idatzi pasarte bat sarrera orokor gisa.
- Aukeratu duzuen emisore-motari dagokion pertsona gramatikala erabili.
- Banatu informazioa pasartetan modu orekatuan.
- Erabili lotura-hizki egokiak testuari batasuna emateko eta ulermena errazteko.
- Adierazi arrazoiak, ondorioak eta baldintzak ongi eraturako menpeko esaldien bidez.
- Lexiko egokia erabili.
- Zuzen erabili puntuazioa.

C) ERREBISIOA

- Errebisatu testua idatzi ahala ziurtatzeko bai edukiak, bai beronen antolaketak komunikatu nahi duzuen informazioa ondo isladatzen dutela.
- Erreparasatu gainerako atal guztiak idazketa-prozesua bukatzera zoaztenean.



Orain eztabaida burutuko da. Azpian datorren plantilaren laguntzarekin, eztabaida behatuko duen taldeak bildu ahal izango ditu beharrezko oharrak gero parte hartzaileekin diskutitzeko.

	ALDE	KONTRA
Gaiari atxiki zaio		
Argudio sinesgarriak erabili ditu		
Argudioak adibideekin argitu ditu		
Kontraargudioak erabili ditu		
Argi espresatu da		
Lexiko zuzen eta egokia erabili du		
Hitz-txanda errespetatu du		
Ez du hitz egiteko txandaren gehiegizko erabilera egin		
Besteen iritziekiko jarrera egokia azaldu du		



EDUKI BLOKEETAKO EZAGUTZA ADIERAZLEEI DAGOZKIEN ARIKETEN ADIBIDEEN ERANTZUNAK

1. Irakurri honako testuak eta atera amankomunean dituzten ezaugarriak honako parametroetan:

- Helburua,
- Erabilera-eremua,
- Igorlea eta hartzailea, eta
- Erabilitako hizkera

1 Testua

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila
EBAZPENA, 2004ko martxoaren 10ekoa, Giza Baliabideen zuzendariarena; honen bidez, 2003ko otsailaren 26ko Ebazpenaren bidez (2003ko apirilaren 10eko EHAA, 72 zk.) egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako lan-kontratuko langile finkoen lanpostu batzuk betetzeko, aukeraketako barne prozedurarako deialdia behin betiko ebazten da.

EBATZI DUT:

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako lan-kontratuko langile finkoen lanpostu batzuk betetzeko, aukeraketako barne prozeduran parte hartu dutenen artean Kalifikazio-epaimahaiak lanpostuak esleitzeko egin duen proposamena behin betiko bilakatzea (1. eranskina).

2.- Prozeduraren ondorioz kontratu-loturan ematen diren aldaketak indarrean sartuko dira, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean.

3.- Lortutako plazei ezin izango zaie uko egin.

4.- Prozedura honen ondorioz, lanpostua esleitzen zaion langileak honakoak bete beharko ditu: Haren kontratua aldatzen den momentutik bi urte pasa arte, ezin izango du Giza Baliabideen Zuzendaritzan kontratu mota aldatzea ahalbidetuko duen prozeduretan parte hartu, hau da, maila igotzea ekarriko duen prozeduretan. Hori nahi izanez gero, kanpokoentzako lehiaketan parte hartu beharko du.

Legeak ezarritako probaldia pasa beharko du hautatutako pertsonak, salbu eta zeregin berberak izan baditu lehenago autonomia erkidegoko administrazioan, edozein modalitatetan.

5.- Esleitutako destinoak borondatezkoztat jotzen dira, horren ondorioz, eta deialdiaren zortzigarren oinarrian xedatutakoaren arabera, aldaketa horiek ez dute inolako kalte-ordainik ordaintzeko eskubidea eragiten.

6.- Ebazpen honek ez du administrazioako bidea amaitzen. Haren aurka, eta lan-auzibidera jo aurretik, erreklamazioa aurkeztu ahalko zaio Giza Baliabideen zuzendariari hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Erreklamazioa ukatu egiten bada, edo hilabetea pasa bada inolako jakinarazpenik jaso gabe, ezetsi dela ulertuko da, eta demanda jartzaileak zerbitzua ematen duen edo helbidea duen tokiko Lan arloko epaitegiaren aurrean —berak aukeratuko du non— inpugnatu ahalko da ebazpena bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso denetik edo ezetsitzat jo behar den egunetik kontatua.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko martxoaren 10a.

Giza Baliabideen zuzendaria, JULIÁN ASURMENDI BARRIO.



2 Testua

Herrizaingo Saila; Industria, Merkataritza eta Turismo Saila; Osasun Saila; Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila

34/2001 DEKRETUA, otsailaren 20koa, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurrien gain eskumena daukaten autonomia erkidegoko organoak zeintzuk diren adierazten duena.

7. artikulua.– Industri Istripu Larrien Prebentziorako Batzordea.

1.– Industri Istripu Larrien Prebentziorako Batzordea sortu da. Kide anitzeko organoa da, eta berak koordinatu eta zainduko du gai arriskutsuak tarteko direnean istripu larrietan sortzen diren arriskuak kontrolatzeko arauen aplikazioa.

2.– Batzorde hori Herrizaingo Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritzari atxikita dago; batzordeburua Larrialdiei Aurre Egiteko zuzendaria da, eta batzordekide bat dago Eusko Jaurlaritzaren jarduera-arlo hauetariko bakoitzeko: herrizaingoa, lurralde antolaketa, osasuna eta industria.

3.– Batzordearen egitekoak:

a) Manuzko txostenak emango ditu, Administrazioak Dekretu honen 2. artikuluko 1. paragrafoko e), f) eta n) idatz-zatietan azaltzen diren erabakiak eta 3. artikuluko 1 paragrafoko c) idatz-zatian azaltzen direnak hartu aurretik.

b) Organo eskudunek eskatuz gero, txostenak egingo ditu, instalazioen barrualdean edo kanpoaldean gertatutako gorabeheren edo larrialdien kausak eta bilakaera azaltzeko eta larrialdiari aurre egiteko nola jokatu den eta zer neurri hartu diren adierazteko.

c) Organo eskudunek eskatuz gero, establezimenduen arriskuei buruzko txostenak egingo ditu, hirigintzan txosten horiek kontuan har daitezzen lurraren erabileraren kalifikazioari buruzko erabakiak hartu behar direnean.

d) Ikuskapenen emaitzei buruzko txostenak igorriko dizkie herri babesaren eta giza osasunerako arriskuen arloko agintari eskudunei, laneko segurtasun eta osasunaren arlokoiei, lurraldearen antolaketa eta hirigintzaren arlokoiei, ingurumenaren arlokoiei eta portuen arlokoiei, baldin eta txostenetan eurentzat interesgarriak izan daitezkeen datuak badaude, neurri egokiak hartu ahal izan ditzaten.

e) Gai arriskutsuak tarteko direnean istripu larrietan sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriei buruzko arauak zenbateraino eta nola betetzen diren ebaluatu eta aztertuko du.

f) Urtero memoria bat egingo du arau horiek Euskadiko Autonomia Erkidegoan urtean zehar zenbateraino eta nola bete diren azaltzeko, eta Euskadiko Herri Babeserako Batzordeari aurkeztuko dio.

Erantzuna:

	1 testua	2 testua
Helburua	Gobernuaren sail batek hartutako erabakiaren berri eman	Gobernuaren sail batek hartutako erabakiaren berri eman
Erabilera-eremua	Harreman instituzionalak	Harreman instituzionalak
Igorlea eta hartzailea	Igorlea: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Giza Baliabideen zuzendaria. Hartzailea: ebazpenaren gaia intereseko duen edozein pertsona	Igorlea: Herrizaingo Saila; Industria, merkataritza eta Turismo Saila; Osasun Saila; Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila. Ez da pertsona konkreturik aipatzen. Hartzailea: ebazpenaren gaia intereseko duen edozein pertsona



Erabilitako hizkera	Hizkera oso teknikoa da, oso objetiboa, espresio zaharkituekin eta egitura oso zurrunen araberako testu antolaketarekin (pasarte zenbakituak, "ebatzi dut" bezalako espresioak testuaren buruan, etabar)	Aurreko testuaren iruzkin bera egin daiteke hemen ere
---------------------	--	---

2. Aztertu enplegu-eskaintzak biltzen dituen orrialdea egunkari batean, bat aukeratu eta erantzuna idatzi gutun batean. Enplegu-eskaintzari erantzun gutuna idatzi ondoren eta binaka bilduta, konparatu idatzitako gutuna ondoan eredu gisa jartzen denarekin. Konparaketarako erabili gutunaren ostean eskeintzen den taulako irizpideak. Behin analisia amaituta, talde handian hitzegingo da mota honetako testuetan azaltzen diren ohiko arazoetaz.

Ariketa bukatzeko azken gutuna idatziko da. Horretarako honako urratsak segitu:

- Aukeratu gutunaren edukia
- Testuaren xedearekin bat datorren erregistroa aukeratu.
- Idatzi zirriborroa
- Zirriborroa aztertu
- Behin betiko testua idatzi. Kontutan hartu gutunaren ezaugarri formalak.

Erantzuna:

Enplegua eskatzeko gutunaren eredu

DATA	Bilbon, 2004ko maiatzaren 31n
AGURRA	Jaun-andre agurgarriak:
GORPUTZA	<p>Prentsan irakurri dut zuen enpresaren iragarkia, Bizkaian egiten diren obretan lan egiteko soldadoreak behar direla esaten duena, eta lanpostu horretarako behar diren baldintzak betetzen ditudala uste dudanez zuei idaztea erabaki dut.</p> <p>Gutun honekin batera bidaltzen dizuet nire "curriculum vitae"-a, zeinetan frogatuta geratzen baita eskatzen duzuen titulua dudala eta antzerako lanetan bi urteko esperientzia dudala.</p> <p>Eskaera hau kontutan hartuko duzue laikoan eta zuen erantzunaren zain, har ezazue nire agurrik zintzoena.</p>
ZINADURA	Fernando Urionabarrena



Erantzuna:

Gutunaren zuzenketa behean aipatzen diren irizpideak jarraituz egin daiteke. Lehen eskeinitako ereduan oinarrituta, ager daitezen problema esanguratsuenak apunta daitezke.

GUTUNAREN HASIERAKO ANALISIAKORRI

<ul style="list-style-type: none">- Atal guztiak agertzen dira?- Egokia al da atalen banaketa paperean?- Zenbat pasarte erabili da?- Agurra eta bukaera formulak ereduaren antzerakoak dira ala informagoak?- Gutunaren hasieran, gutuna zergatik idazten den azaltzen da?- Gutuna zertarako idazten den aipatzen al da?- Ematen al da arrazoirik gutuna erantzutera bultzatzeko?- Bapatean al dator agurra?- Nola tratatzen da hartzailea? Zuka?, berorika?, hika?- Mantentzen al da tratamendu-formula testuan zehar, ala aldatu egiten da?	
--	--

Gutunetako arazorik arruntenak detektatu ondoren, enplegua eskatzeko gutuna nola bete behar den gogoraziko duen kontrol-orria egingo da.

Emitza ondoan eskeintzen den koadroaren antzerakoa izan daiteke.

Enplegu gutuna erredaktatzeko kontrol orria

<ul style="list-style-type: none">- Ez ahaztu gutunaren atalak- Modu egokian banatu atal horiek paperean. Espazioa banatu- Margina egokiak mantendu- Data laburduririk gabe idatzi. Tokia eta data koma batez bereiztu- Hilaren izena letra xehez idatzi- Modu formal eta inbertsonalean agurtu- Hartzailea zuka tratatu- Agurraren ostean bi puntu jarri- Gurunaren gorputza pasartetan banatu- Lehen pasartean, gutuna zergatik idazten den azaldu- Ez ahaztu testu osoan zehar mantentzen aukeratutako tratamendua (zu/zuek; singular/plural)- Pasarteak antzerako luzerakoak izan daitezen saiatu- Bigarren pasartean, gutuna erantzuteko arrazoiak eman- Bukaera ez dadila bapatekoa izan- Ez ahaztu gutuna zinatzen

Azken gutunaren zuzenketa kontrol orriko irizpideak segituz egin behar da.



3. Jende guztiarentzat interesekoa den gai bati buruzko informazioa bilatu. Adibidez, “planetaren beroketa globala” edo “komunikazioen iraultza”. Bilaketan, honako baliabideak erabili:

- “Google” bilatzailea. “Bilaketa aurreratua” eta “Gida” izeneko erremintak erabili.
- Liburutegian gaiarekin zerikusia duten CD-ROM-ak.
- Egunkari digital baten hemeroteka. Erabili egunkari horretako bilaketarako aukerak.
- Liburutegiko katalogoa, bilatzeko gaiarekin erlazionatutako liburuak.

Erantzuna:

Aktibitate honek ez du zuzenketa beharrik. Dena den, aukeratutako informazioen pertinentzia balioesteko hau bezalako gida erabil daiteke:

- Informazio kantitatea: eskasa / nahikoa / gehiegizkoa.
- Erabilitako iturriak: antzerakoak / ezberdinak; ezezagunak / ezagunak desegokiak / egokiak .
- Informazioen interesa: interes txikikoa / interesgarria.
- Informazioaren dibertsitatea: errepikatua / dibertsoa; aurrera doa / puntu berean geratzen da
- Bilaketaren xedea eta bilatutako informazioa bat etortzea: ez da oso egokia / nahikoa bat dator / oso egokia da.

4. Irakurri testuak arretaz eta testuen ostean proposatzen diren atazak burutu

Testua




tsunamien indar harrigarria

Asia hegoaldean gertatutako lurrikarek 9.0 graduko indarra izan zuten Richter eskalan, Hiroshiman jaurtikitako bonba atomikoak baino mila aldiz gehiago, hain zuzen.

Lurrikaren ondorioz sortutako

eta abiadura -640-960 km/orduko-izugarriak dira.

Tsunamiak iragartzea gauza zaila izaten da, itsaso zabalean olatuek altuera txikia izan ohi dutelako. Kostaldera hurbiltzen direnean, aldiz, erraldoi bihurtzen dira



Lurrikaren ondorioz sortutako tsunamiek, milaka hildako eragin zituzten Indian, Sri Lankan, Indonesian eta Somalian, lurrikararen epizentrotik 4.100 km ingurura. Hala ere, zer dira zehatz-mehatz tsunami delako horiek?

Tsunamiak lurrikara baten ondorioz sortutako itsas uhin erraldoia da. Tsunamiak kalte handiak sortzen ditu, itsaspeko lurrikarak gertatzen diren lekuetan, batez ere. Itsaso zabalean, uhinaren garaiera ez da metro batera heltzen, baina luzera -15 bat kilometro-

direnean, aldiz, erraldoi bihurtzen dira olatu hauek. Arazoari aurre egiteko, zientzialari japoniarrek GPS sistema erabili nahi dute. Hain zuzen, japoniarrek buiak jarriko dituzte Ozeano Barean, mugimendu bertikalari buruzko informazioa jasotzeko. Buia bakoitzak GPS hargailua eta irrati-transistorea izango ditu, eta Tokioko Unibertsitateak egingo du buietatik iristen den informazioaren jarraipena. Egia esan, oso ideia ona da, tsunamiak igartzea gauza garrantzitsua da eta.

2 testua

Tsunamiak izan eta gero, zer?

2005/02/06 | Galarraga, Ana |


Zer egin bizirik atera direnei laguntzeko? Nola banatu diru-laguntza? Zerk du lehentasuna? Zer egin eremua lehenbailehen leheneratzeko? Nondik hasi? Galdera horiei erantzutea ez da inondik inora erraza, eta tsunamiak hondatutako lurraldeetako agintariak ahal dutena egiten ari dira. Hainbat erakunderen laguntza dute, tartean FAOrena. Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundea da FAO, eta, hasteko, bizirik gelditu direnen elikadurari eta hango ekosistemei jarri die arreta, besteak beste

Asiako hegoaldean zurrumurru bat zabaldu da. Agidanez, ez da komeri tsunamiak jotako lekuetako arraina jatea. Arraina kutsatuta omen dago. Nonbait, oso arriskutsua da arraina jatea; izan ere, gorpu ugari eraman zituen urak, eta gorpu horietatik elikatutako arrainek gaixotasunak kutsa ditzaketela uste dute. Okerrena da zurrumurruek kalte larriak sortu dituela, horren ondorioz arrainaren kontsumoa jaitsi egin baita.

Zurrumurrua zenbateraino den egia jakiteko, FAOk berehala aztertu ditu inguru haietako arrain eta itsaski jangarriak, eta, azkenean, adierazi du zurrumurruek ez duela oinarri sendorik. Prentsa-ohar baten bidez zabaldu ditu ikerketen emaitzak, eta hango agintariei ere jakinarazi die arraina edo itsaskia jateak ez dakarrela inolako arriskurik osasunerako.

Aldiz, arraina jateari uztea benetan kaltegarria da, herrialde horietako dietan arraina oinarri-oinarritzkoa baita. Hain zuzen ere, munduan arrain gehien jaten den lurraldea tsunamiak jotako horixe da. Gainera, hondamenditik bizirik atera direnak oso ahulduta daude; beraz, behar-beharrezkoa dute arraina jatea ondo elikatuta egoteko eta aurrera ateratzeko aukera izateko.

Indonesian eta Sri Lankan pertsona bakoitzak urtean 21 kg arrain jaten ditu batez beste, eta Maldivetan ia 200 kg-ra iristen da kontsumoa. Indiako kostaldean ere arrain-kontsumoa oso altua da. Horregatik jarraitu behar dute



arraina jaten; bestela, ez dute beste ezer jateko. Hori bai, arrainak eta itsaskiek egoera onean egon behar dutela eta erraiak kenduta eta ondo egosita jan behar direla ohartarazi du FAOK.

Nolanahi ere, arrain-haztegieta arrisku bat badagoela onartu du FAOK. Kontua da tsunamiak kalteak eragin zituela ur-horniduran eta estolderia-sisteman. Beraz, ez da harrizkoa hainbat hondakin-ur haztegieta iragaztea. Ondorioz, arrainek birusek, bakterioek edo bizkarroiek eragindako infekzioak izan ditzakete, eta arraina gordinik edo gutxi eginda jaten dutenek gaixotzeko arriskua dute. Itxura oneko arraina, eta ondo garbituta eta ondo eginda, jaten dutenek, berriz, ez dute arriskurik.

Toxinak ere, kezka-iturri

Bestetik, urak nahasten direnean, litekeena da alga toxikoak ugaltzea eta marea gorriak sortzea. Marea gorriak oso kaltegarriak dira; izan ere, alga toxikoak jaten dituzten arrainak hiltzen dituzte, eta, denak hiltzen ez badira ere, toxinak metatu egiten dira, bai arrainetan, bai itsaskietan, baina batez ere moluskuetan. Hortaz, norbaitek horrelakorik jaten badu, intoxikatze arrisku handia dauka. Toxina horiek ikaragarri bortitzak dira, eta gaixotasun benetan larriak sortzen dituzte. Heriotza ere eragin dezakete.

Oraingoan, ordea, ez dago hori gertatzeko arriskurik. FAOren esanean, orain dagoen eguraldia ez da batere egokia algak ugaltzeko. Izan ere, euriteen eta tenperatura hotzen sasoian daude; hori dela eta, ez dute uste biotoxinak arazo izango direnik.

Bestelako toxinak ere egoten dira uretan, adibidez, mineral astunak. Baina horiekin ere arazorik ez dela egongo uste du FAOK, ez baitirudi tsunamiak urak nahastean arraina kutsatzeko adina gai kimiko natural askatutako zenik.

Mangladiak leheneratzeko beharra

Elikagaien segurtasunaz gain, mangladiak ere FAOren lehentasunen artean daude. Hain zuzen ere, mangladiak leheneratzeak asko lagunduko luke hondamendia gainditzeko. Alabaina, FAOren ustez, kontu handiz egin behar dira mangladiak landatzeko programak.

Mangladiak 15 milioi hektarea inguru hartzen dituzte mundu osoan, eta horien % 40 tsunamiak hondatutako eremuetan zeuden. Hango bizimodurako, mangladiak ezinbestekoak dira. Zura, sutarako abarrak eta etxeak egiteko materialak lortzen dituzte mangladietatik, eta, zeharka, arrainei eta itsaskiei babesa eta jana ematen diete. Hortaz, arrantzarako toki egokiak dira. Halaber, olatu handietatik babesten dute kostak.

Mangladiak oso aberatsak eta baliagarriak diren arren, ezin dira edozein tokitan landatu. FAOren ustez, leheneratzeko programek kostak osotasunean hartu behar dute kontuan; bestela, dotokeek arrautzak jartzen dituzten tokiak edo algen ohantzeak kaltetzeko arriskua dago.

Dena dela, gauza bat argi dago: zura behar-beharrezkoa dute etxeak berreraikitze, azpiegiturak egiteko, itsasontziak eta txalupak konpontzeko eta



berriak egiteko, eta baita sutarako ere. FAOkoak horretaz jabetzen dira, baina beldur dira mangladietan presio are handiagoa ezarriko duela behar horrek. Gaurko ogia, biharko gosea? Ez da erraza asmatzea, baina horretarako ari dira lanean.

1. Azpimarratu testua eta bereiztu berorren ulermenerako ezinbestekoa ez den informazioa.
2. Atera pasarte bakoitzaren ideia nagusia esaldi nominal baten bidez.
3. Elaboratu testuko ideien antolaketa eta egitura isladatzen dituen zenbakizko eskema bat.
4. Idatzi testuko edukiaren funtsa bil dezan laburpena. Ekidin itzazu testuari buruzko iritziak eta balorazioak.

5. Telebista digitala eta telebista analogikoaren abantaila eta desabantaila buruzko txostena egin. Horretarako, honako urratsak segitu:

- Bilatu telebista digitala eta telebista analogikoaren ezaugarri buruzko informazioa hedabideetan.
- Irakurri eta aukeratu gure helburuetarako beharrezko eta garrantzizko informazioa.
- Egituratu informazioa konparaketa oinarri duen azalpenezko eskema baten bidez, zinetan telebista-mota bien ezaugarriak aurrez aurre jartzen diren.

Sarrera

Telebista analogikoa

1 ezaugarria

2 ezaugarria

3 ezaugarria

Telebista digitala

1 ezaugarria

2 ezaugarria

3 ezaugarria

- Gehitu azken pasarte telebista digitalaren aldeko iritzi pertsonala emateko. Aurkeztu bi edo hiru arrazoi.



Erantzuna:

Azken testua bilaketan aukeratutako informazioaren arabera izango da. Ezinezkoa da, beraz, testu zehatzik eskeini. Edozelan ere, ondoan testua idazteko zenbait irizpide eskaintzen da:

<p>Lehendabiziko paragrafoan gaiaren sarrera eskeintzen da eta zertaz hitzegingo den adierazten da.</p> <p>Bi tlebista-motak konparatzeko ezaugarri egokiak aukeratzen dira.</p> <p>Ez ditu konparatzen izaera ezberdineko ezaugarriak.</p> <p>Paragrafo bat eskeintzen zaio aukeratutako ezaugarri bakoitzari.</p> <p>Ez dago informazio errepikaturik.</p> <p>Azken paragrafoak iritzi pertsonala erakusten du.</p>	
---	--

- 6. Azalpenezko testua egin. Testua, informazio eta komunikazioaren teknologia berrien gaineko ikerketa lantxo baten emaitza izango da. Informazioa bilatu, aukeratu eta antolatu, gero idatzi eta modu koherente eta egokian aurkeztu ahal izateko. Horretarako azalpenezko egituretako bat erabili.**

Gidoi honek markatuko du lana burutzeko urratsak. Bere luzera bi edo hiru orrialdekoa izango da.

LANERAKO GIDOIA

1. Aukeratu gaia eta argi definitu gaiak dakizuen eta bilatu behar duzuen.
2. Planifikatu lana.
 - Informazioaren bilaketa (liburutegiak, hiztegia, aldizkariak...). gutxienez hiru
 - informazio-iturri erabili.
 - Informazioaren irakurketa eta bilketa
 - Informazioaren aukeraketa
3. Antolatu informazioa:
 - 3.1. Aukeratu testu-eskemarik egokiena mezuaren garapenerako.
 - 3.2. Komunikazio-egoera
 - lgorlea: gizarte-papera
 - Hartzailea: gizarte-papera
 - Erabilera-eremua
 - Helburua



- 3.3. hizkeraren erabilerari buruzko erabakiak
- Komunikazio-egoera honetarako hizkuntza-marka egokiak.
 - Testuaren egiturarako egokiak diren kohesio-elementuak.
 - Prozedura lexikoak.
 - Esaldi-egitura eta erregistro formalaren aukeraketa.

4. Testuaren erredakzioa:

- 4.1. Zirriborroaren erredakzioa eta beronen azterketa "3" ataleko erabakiekin bat datozela ziurtatzeko.
- 4.2. Azken erredakzioa. Kontutan hartu paginazioa, ortografia, marjinak...
- 4.3. Aurkezpen egokia. Honakoak izan behar ditu: portada, gai-zerrenda, lanaren enborra, Bibliografia eta kontraportada

Erantzuna:

Azalpenezko testua zuzentzeko txantiloia

Zuzenketarako gidalerroak	Iruzkinak
1. Testuak informazioa emateko xedea betetzen al du?	
2. Testuak ematen duen informazioa nolakoa da?: eskasa / egokia / gehiegizkoa ...	
3. Argia al da testuaren egitura? Paragrafo bakoitzak ideia bat garatzen al du? Paragrafoek antzerako luzera al dute?	
4. Zein pertsona erabiltzen da idazkian? Lehena, bigarrena, hirugarrena?	
5. Zein da nagusitzen den aditz denbora?	
6. egokia al da erabilitako tratua eta lexikoa? Jasoegia? Informalegia?	
7. Zein da sarrien erabiltzen den aditz modua? Esaldi enuntziatiboak dira nagusi ala ez?	



7. **Honako testu periodistikoak irakurri behar dira, eta bi zutabetan jarri, zutabe batean izaera informatibo hutsa dutenak, eta bestean iritzi edo interpretazioren bat agerrarazten dutenak. Egiten den sailkapenerako arrazoiak eman.**

KONPONBIDE BILA

Eusko Jaurlaritzaren Droga Gaietarako Zuzendaritzak jakitera eman duenez, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 14 eta 19 urte bitarteko gazteen artean ia hirutik batek gehiegizko alkohol kontsumoa egiten dute asteburuan

Gorka Quevedo - DONOSTIA

«Agerikoa da gazte ugari asteburuetan egiten duten gehiegizko alkohol kontsumoa arazo larria dela, eta arazo hori gure artean dagoela. Horregatik jarri dugu arazo horri aurre egiteko plana». Hala mintzatu zen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako sailburu Javier Madrazo adingabeen gehiegizko alkohol kontsumoari lotutako arazoei aurre egiteko Eusko Jaurlaritzak garatu duen planaren aurkezpenean. Izan ere, Droga Gaietarako Zuzendaritzak eginiko ikerketak ondorioztatzen duenez, azken hamar urteetan aldatu egin dira gazteek alkohola kontsumitzeko dituzten moduak.

«Gazteek alkoholik edan gabe bizitzaz gozatzeko aukera izatea nahi dugu», dio Madrazok. Arazoari aurre egiteko gakoa prebentzioa dela uste du. «Prebentzioa da kontuan hartu beharreko lehen faktorea. Esperientziak argi uzten du errepresioan eta debekuan oinarritutako legeek porrot egiten dutela».

Gazteak gero eta lehenago hasten dira edaten

Drogamendekotasunen Euskal Behatokiak burututako txostenaren datuak«kezkarriak» direla dio Madrazok. Ikerketaren arabera, gazteak gero eta lehenago hasten dira edaten. Gainera, emakumezkoak gero eta gehiago sartzen dira kontsumoguneetan. «Neurri onargarriak planteatuko badira, ezinbestekoa da arazoak zerikusia duen eragile bakoitza eta bere beharrianak kontuan hartzea».

Ikerketa gehienek datuak izaten dituzte oinarri gisa. Kontuak kontu, datuak ez zaizkio hain garrantzitsuak iruditzen Igor Zurutuza gizarte hezitzaileari. «Datuak ez zaizkit funtsezkoak iruditzen. Gazteek beti edan dute, eta etorkizunean ere edaten jarraituko dute. Arazoari aurre egiteko erantzuna ezin da debekua izan; arazoaren aurrean komunitate gisa zer jarrera hartzen dugun garrantzitsuagoa da. Arriskua murriztea izan behar luke helburua. Gazteari tresnak eman behar zaizkio kontsumo osasuntsuagoa egiteko, norbera bere buruaren jabe den aldetik, kontsumoaren neurria bakoitzaren arabera izateko. Gakoa kontsumoarekiko zein jokabide hartzen dugun da».Arazoari benetako konponbidea bilatzeko borondatea badago, gizarte eragile guztien parte- hartzea ezinbestekoa dela uste du Zurutuzak. «Udalek alde bateko erabakiak hartzen dituzte maiz; hori horrela den kasu gehienetan porrot egiten dute hartzen dituzten neurriek. Arazoari aurre egiteko filosofia aurrerakoi bat behar dugu, parte -hartzailea. Herriko gizarte eragileak kanpoan uzten badira, ez da ezer lortuko».Zurutuza bat dator debekuen politika eraginkorra ez dela uste duten pertsonekin. «Gazteei alkoholaren kontsumoa debekatzea ez da irtenbidea; era horretako politikekin ez goaz inora. Guztien ardura da gazteen etorkizuna».

“Berria”-tik hartua



Langile bat hil da Urnietan, aldamiotik erorita

ERREDAKZIOA

Eraikuntzako langile bat hil zen atzo goizean Urnietan, aldamio batetik erorita. Goizeko hamarrak inguruan izan zen istripua, eta langilea, sei metroko alturan zegoen aldamio batetik jausi zen. Erortzerakoan, ondoan zeuden burdinak jo zituen.

Istripua, Urnieta herriko Idiazabal kalean izan zen. Ertzaintzak jakinarazi zuenez, langilea unena bertan hil zen, erori ondoren hartu zuen kolpearekin. Lan istripua gertatu bezain pronto, Osalanek teknikari bat bidali zuen Urnietara ezbeharraren inguruko ikerketa hasteko. Hala, istripuaren arrazoiak aztertu ondoren, txostena idatziko dutela eta goitik behera aztertuko dutela azaldu zuen Osalanek.

Aberri berria II

Aberri berria ez dun Obaba. Aberri berria ez dun Arralde. Benetakoa dun aberri berria, Jota, eta aldatu egiten dun, benetakoa den guztia aldatzen den moduan.

Lau bat urtetik behin baditun hauteskundeak, eta baditun irabazleak. Lau bat urtetik behin aukeraten ditinagu agintariak. Eta beti berdinak. Jendeak lan egiten din, etxea erosteko, zorrak ordaintzeko, umeak hazteko, oporretara joateko, eta baita bere heriotzako orduan ezer falta ez dakion ere; ondo bizi ahal izateko, jendeak lan egiten din. Lan egiten dinagu. Ez zaigun lau bat urtetik behineko boza eta urteroko zergak ordaintzeko besterik eskatzen. Harrituta bezala begiratzen zionagu bizitzari: aukeratu ditugun eta aukeratu ez ditugun agintarien erabakiak entzuten ditinagu egunero.

Arteari eta Kulturari gabe Turismoari eta Ekonomiari begirako museo bat eraikitzen ditin, dirutza (publiko) ederrak gastatuz, aurrera doan herriaren irudia emateko.

Urtegiak egiten ditizten interes orokorraren izenean. Herriak urperatzen aitzinamenduaren izenean. Izua hedatzen saiatzen ditun, 50 urteko atzerapenaren kontuarekin, eta publizitate ankerra egiten ditin Abertzale Handikientzako Trena onar dezagun geure desioen kutxan, edo beste edozein bankutan. Merkataritza Gune erraldoiak eraikitzen ditun, gure erosotasunaren mesedetan. Futbol Zelaiak handitzeko proiektuak egiten ditun non entretenitu izan dezagun igande arratsalde luzeetan. Baina benetakoa dun aberri berria, Jota, eta proiektu horiekin guztiekin liluratzen gaituzten bitartean, langileak oraindik hiltzen ditun lanean. Zarratu egiten ditun irakurri nahi ez diren egunkariak, eta babesgabe sentitzen gaitun. Legez kanpoko bihurtzen ditun ideiak, eta ahazten ditinagu ideiak eta ideia horiek gudan izan duten eragina. Baina erraz moldatzen gaitun egoera berrietara. Orain beste zerbait nahi dinagu. Lasaiagoa, erosoagoa. Izutu egiten gaitun eta ez dinagu arazorik bilatu nahi, lehendik dauzkagunez gain. Eta gogoz kontra bada ere sartzen gaitun zurrumbilo eroan, eta gogortu egiten gaitun, eta armairua gero eta beteago dinagu mozorroz, eta irribarre postizoz, eta honek ez zeukan gelditzeko itxurarik, Jota. Benetakoa dun aberri berria. Eta aldatzen ari dun. Ez daukan izenei erreparatu besterik: Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbao Exhibition Center, Euskalduna Jauregia, Gipuzkoarena, Baluarte. Haindikien poetika itsusiak sortutako mundu erosoan bizi gaitun, beharrezko ditugula sinetsarazi ostean.

Benetakoa dun aberri berria, gezurra dirudien arren.

"Berria"-tik hartua



Gurasoek 1.500 euro ordainduko dituzte eskola materialean

Kontsumitzaileen elkarteek diote iaz baino %6,7 garestiagoa dela umeak eskolatzea

Asier Iturriagaetxebarria

Laster hasiko den ikasturtean, bateaz beste 1.300 eta 1.500 euro bitartean ordaindu beharko dute seme-alaba bakoitzeko Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako gurasoek. Horixe da Euskal Herriko Kontsumitzaileen Elkarteak (EKA) eta Euskadiko Kontsumitzaileen Batasunak (EKB) egindako azterketaren ondorioa. Hau da, iaz baino %6,7 gehiago ordaindu beharko dute gurasoek. Halaber, kontsumitzaileen eskubideen defentsarako bi elkateek azpimarratu dutenez, 1997. urtean ume bakoitzeko gastua 491 eurokoa zen. 2003-2004 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako haur bakoitzak 1.326 euroko gastua eragingo du ikasliburu, material, garraio eta bestelako zerbitzuengatik. Bigarren Hezkuntzako ikasle bakoitzeko gastua, berriz, 1.500 eurokoa izango omen da.

EKAko ordezkari Berta Garciak atzo azaldu zuenez, ikasliburuen garestitzeak eragin du hazkunde hori. Azterketa egiteko, Bizkaiko eta Gipuzkoako bot liburu-denda eta Arabako hiru begiratu dituzte EKAk eta EKBk. Hala, eskolarako materiala saltzen duten ikastetxeak ez dituzte sartu azterketan. «Kontsumo Prezioen Indizeak baino nabarmen gehiago igo dira ikasliburuen prezioak», salatu zuen Garciak. Izan ere, Lehen Hezkuntzako sei ikasliburu erosteagatik 97,4 euro eta 114 euro bitartean ordaindu beharko dute gurasoek. Bigarren Hezkuntzako liburuak garestiagoak dira: 183 eta 202 euro bitartean saltzen dira sei ikasliburu.

Ikasliburuen alorrean Iparraldean indarrean daukaten politika Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan ezartzea interesgarria izango litzatekeela agertu zuen Garciak. «Iparraldeko gurasoek laguntza handiak jasotzen dituzte Frantziako Gobernutik. Gainera, liburuak bata besteari uzteko politika daukate. Gure seme-alabei kontsumoaren gizartean bizitzen irakatsi behar badiegu, nola esan ahal diegu liburuak erabili ostean botatzeko?», galdetu zuen. Era berean, urtero liburu berriak erosteko premiaren atzean argialetxeen interesak daudela esan zuen.

Ikasliburuenei beste gastu batzuk gehitu behar zaizkie: materiala (45-70 euro), motxila (33-48 euro), garraioa (432 euro) eta jantokia (500-770 euro).

Beherapenak aprobetxatzeko gomendioa

Orain dela bi urtetik hona, liburu dende %25eko beherapenak egin ditzakete ikasliburuetan. EKAk eta EKBk beherapenak aprobetxatzeko gomendatu zieten kontsumitzaileei. Hala ere, ikasliburuen etiketak egoera onean egon behar dutela gogoratu zien gurasoei, legeak dioelako eskubide hori daukatela kontsumitzaileek. «Beherapenen inguruan egiten duten publizitatea egiazkoa den jakin dezakegu horrela», esan zuen Garciak

Horren harira, egiten dituzten eskaintzen gardentasunean liburu denda askok oztopo asko jartzen dituztela azpimarratu zuen EKAko ordezkariak. Hori dela eta, liburu denda bat baino gehiago bisitatu eta salneurriak alderatzeko gomendatu zuen.

“Berria”-tik hartua



Frantziako lege berriak legeak urratzea ekarri du

Immigrazioa arautzeko Sarkozyk ezarritako legearen ondorio latzak azaldu ditu Cimadek, Hendaiaiko atxilotze eremuko datuak emanez

AITOR RENTERIA - BAIONA

Immigrazioa arautzeko Sarkozyk indarrean ezarri duen lege berriak lege urraketara daramala salatu du Cimadek, atxilotze eremuetako pertsonen laguntza ematen dien elkarteak. Legea joan den azaroan bozkatu zuten Parisen, eta geroztik Hendaiaiko atxilotze eremuan diren pertsonen kopurua %30 hazi dela salatzen du Christophe Piedra Cimadeko arduradunak. 2003an 560 etorkin atxiki dituzte Hendaiaiko atxilotze eremuan.

Alabaina, Sarkozyk iragarritako emaitzak lortzeko legeak usuegi urratzen direla nabarmendu du Cimadek.

M.L.-ren kasua

Joan den asteartean M.L. etorkin ginearra atxilotu zuen Frantziako poliziak eta Hendaiaiko eremura eraman. Sei urte bete dira M.L. etorkina Europara sartu zenetik. Geroztik, familia osatu du. Frantziako estatuan jaiotako haurra dauka, 10 hilebetekoa. Bere neskalaguna Sierra Leonakoa da eta babes politikoa dauka Frantzian. Haurdun dago berriz, eta ekainerako espero du haurride berria.

Pirinio Atlantikoetako Prefeturak etorkina bere sorterrira itzularazteko agindua eman zuen. Cimadek helegitea ezarri zuen Paueko Auzitegian. Azken horrek, joan den ostiralean aztertu zuen kasua, eta Prefeturaren ebazpenak legea urratzen duela erabaki zuen. Erabaki horren ondoren, Prefeturak etorkinaren egoera bideratu beharko du, behar diren agiriak emanez. Joan den abenduan ere gisa bereko erabakia hartu zuen Baionako Auzitegiak. Kasu horretan, Baionako Suprefeturak Kongoko etorkin bati mugaratze agindua eman zion. Sorterrira itzultzeko hegazkinera sartzera zihoazelarik, erabakia ez zuela onartzen jakinarazi zien polizia kongoarrak, eta Baionako Auzitegira eraman zuten. Kanporaketa legez kontrakoa zela ebatzi zuen auzitegi horrek eta bertan behera utzi zuen afera.

Obsesioak eta lege hausteak

«Horrelako aginduak hartuz, Baionako Suprefeturak eta Paueko Prefeturak argi erakusten dute ezin diotela eutsi Barne Ministerioak iragarritako kopuruak betetzeko obsesioari, eta legea urratzeraino eraman ditu horrek» dio Piedrak. Legea urratzeko saiakerak salatu ditu Cimadekoak, etorkinen eskubideak zangopilatzen direlako. Gainera, arreta zorrotzuko dutela jakinarazi du.

«Etorkin kopuruak apalarazi nahi dituen legea gogortu bada ere, dagoeneko argi erran genezake ez duela egoera zuzenduko ez eta etorkinei hona jiteko gogoia kenduko ere. Ez du eraginkortasunik ukanen, errepresioa areagotzea ez baldin bada», gaineratu du Piedrak. Cimaderen iritziz inmigrazioa ez da hesiak altxatu eta hegazkin gehiago ezarritu kudeatzen.

"Berria"-tik hartua



Agur Europari

Talde nafarrak ezin izan zuen gainditu Bartzelonak Palaun lortutako sei goleko alde handia
irene arrizurieta - IRUÑEA

Portlandek agur esan zion Txapeldunen Ligan jarraitzeko ametsari. Bartzelonak bere etxean lortutako sei goleko alde ezin izan zuen gainditu atzo Arrosadiko pabiloian jokatu zuen final-zortzirenetako itzulerakoan. 30-24 irabazi zuen talde nafarrak, eta gol bakarra falta izan zitzaion Europan segitzeko. Hala ere, aurkariak baino hobeto jokatu zuen Portlandek.

Bi taldeak jokoan asko zutela adierazi zuten partidaren lehen minutuetan. Urduri atera ziren kantxara, baloia erraz galtzen zuten, eta behartu gabeko hutsfranko egin zituzten. Portland izan zen gola sartzen lehena, baina kostata, Bartzelonak oso defenza itxia egiten zuelako, zirrikiturik utzi gabe. Hala ere, katalanek ez zuten Kasperren atea laugarren minutura arte zulatu. Bi taldeak parekatuta hasi ziren markagailuan, baina hamargarren minutuan Portlandek 7 eta 4ko partziala lortu zuen, Alberto Martinek hirugarren gola lortzeaz bat. Ordutik, eta lehenengo zatiko azken minutuak iritsi arte, Portlandek hiru goleko aldeari eutsi zion. Aitzitik, azken minutuetan Bartzelonak Iker Romero gasteiztarraren abilezia eta indarra baliatuz, markagailuan alde gutxiti zuen eta lehenengo zatia 15-13 bukatu zen.

Bigarren zatian Portland gogotsu atera zen erasora, eta Albert Rocasek 17-13koa egin zuen. Defentsa gogorra egiten ari ziren nafarrak, Romerori ongi eutsiz. Gainera, kontraeraso azkarretan asmatzen ari zen Portland, eta partida amaitzeko 18 minutu falta zirela sei goleko alde lortu zuen Jorgenseni esker, eta markagailua 21-15 jarri. Bartzelonako jokalaririk hoberena, Romero, nekatuta zebilen, ezinean, eta Bartzelona nora gabe. Nafarrek aukera baliatu zuten, eta Lubejek lortu zuen zazpi goleko alde. Markagailua 24-17koa zen. Portlandek Europan jarraitzeko ametsa eskuetan zuen, baina Bartzelonak kontraerasoan alde gutxiti zuen. Gainera, Kasper bi minutuz kaleratu egin zuten partida bukatzeko 14 minutu falta zirela. Bartzelonak berriro alde lau golera jaitsi zuen, Romerori esker beste behin. Partida bukatzeko 11 minutu falta zirenean, markagailua 26-21 zen.


Eromena hondarrean

Azken bost minutuak eromena izan ziren. Garraldak 28-23koa jarri zuen markagailuan, baina Romerok golak sartzen segitzen zuen. Hiru minutu falta zirenean, Rocasek 29. gola sartu zuen, baina Richardsoni falta adierazi zioten erasoan. Partida bukatzeko minutua falta zela, Rocasek gola sartu zuen eta markagailua 30-24 geratu zen. 26 segundo falta zirela ekin zion Portlandek azken erasoari, baina Barrouquet atezainak Mateo Garraldaren azken jaurtiketa gelditu egin zuen.

INFORMATIBOAK	IRITZIZKOAK	ARRAZOIAK

Erantzuna:

Badira testu batzuk argi eta garbi informatibo kontsideratu beharrekoak eta besta batzuk iritzizkoak. Hala ere badira beste batzuk egitura informatibo baten gainean nolabaiteko iritzia ere ematen dituztenak. Horrelakoak zerrenda bietan sartu dira, nahiz eta zentzu estuan hartuta iritzizko sailean sartu beharko genituzkeen (edozein kasutan horrelakoetan



iritzizko testuetan ohikoak diren figura erretorikoak eta lehen pertsonaren erabilera falta diren)

INFORMATIBOAK	IRITZIZKOAK	ARRAZOIAK
“Langile bat hil da Urnietan, aldamiotik erorita”	“Aberri berria II” “Konponbide bila”	<ul style="list-style-type: none"> • testu informatiboa da berria osatzen duten gertakariak agertzen dituelako inolako iritzirik eman gabe. Ez dago defendatu beharreko tesirik. Erabiltzen den lexikoa neutroa da. • Iritzizko testuada gaurkotasuneko gai baten inguruko iritzia defendatu nahi duelako, eta horretarako argudioak agertzen ditu. Lehen pertsonan idatzitako esaldiak agertu ohi dira, igorleak testuan parte hartzen baitu (berrian ez da horrelakorik gertatzen). Lexikoa adierazkorra da, eta hitz markatuak (konnotazio positibo zein negatibokoak) erabiltzen dira. Hizkeraren erabilera askeagoa dago eta figura erretorikoak, hitz jokoak, galdera erretorikoak, etabar erabiltzen dira
“Konponbide bila”	“Gurasoek 1500 euro gastatuko dute eskola materialean”	
“Gurasoek 1500 euro gastatuko dute eskola materialean”	“Frantziako lege berriak legeak urratzea ekarri du”	
“Frantziako lege berriak legeak urratzea ekarri du”	“Agur Europari”	
“Agur Europari”		

8. Iharduera honetan “Agur Europari” izeneko testuan zentratuko gara.

- Hasteko, artikulua irakurri arretaz, eta gero, pasarte bakoitzeko informazio inportanteena atera.
- Zein da testu honen asmoa? Arrazoitu nola heldu zareten ondorio horretara.
- Testuan autorearen zenbait balorazio agertzen dira, hala nola: “aurkariak baino hobeto jokatu zuen”, “behartu gabeko huts franko”, “abilezia eta indarra baliatuz”, ...
- Bilatu eta azpimarratu artikuluan testuari subjektibitatea ematen dizkioten eta autorearen inplikazioa adierazten dituzten hitzak eta espresioak.

Erantzuna:

• Pasarte bakoitzaren informazio inportanteena

1. pasarte: partiduaren sumarioa egiten da Portlandek partidua galdu eta Txapeldunen ligatik kanpora gelditu dela adieraziz.
2. pasarte: partiduaren lehen zatiaren kronika egiten da esanez hasieran urduritasuna zela nagusi, pixkanaka Portland nagusitu zela eta azkenik Bartzelonak diferentzia murriztu zuela.
3. pasarte: bigarren zatiaren kronika egiten da esanez defentsa onean oinarrituz Portland markagailuan nagusitu zela, baina azken minutuetan kontraerasoan diferentziak murriztu zituela.
4. pasarte: azken bost minuturen kronika, non azken minutuen emozioa kontatzen den. Azken 26 segunduak izan zituen Portlandek kanporaketa bere alde jartzeko, baina ez zuen lortu.

• Testuaren asmoa

Artikuluaren helburua Portland eta Bartzelonaren arteko partiduaren berri ematea da, eta Portlanden kanporaketagatiko pena adierazten du. Artikulua kronika bat da, hau da informazioa eta iritziaren arteko nahastea, eta horregatik egileak lexiko markatua erabiltzen du, partiduari buruzko bere iritzi pertsonala agertzeko.

• Subjektibitatea adierazten dituzten espresioak

- “agur esan zion Txapeldunen Ligan jarraitzeko ametsari”
- “aurkariak baino hobeto jokatu zuen”
- “ bi taldeak jokoan asko zutela adierazi zuten”



“behartu gabeko huts franko”
“baina kostata”
“oso defentsa itxia”
“zirrikiturik utzi gabe”
“abilezia eta indarra baliatuz”
“gogotsu atera zen erasora”
“defentsa gogorra”
“asmatzen ari zen”
“nekatuta zebilen, ezinean”
“nora gabe”
“aukera baliatu zuten”
“ametsa eskuetan zuen”
“eromena izan ziren”

9. **Aktibitate honetan ekarriko dira ikasgelara hedabide ezberdinetatik ateratako zenbait erreportaia mota honetako analisia egiteko. Analisia egiteko, hedabideetako ezaugarri kontestual, diskurtsibo eta hizkerazkoak biltzen dituen teoriatzko liburuaz (testu liburu bat edo) baliatuko da.**

Erantzuna:

Orientabide gisa, honako jarraibideak erabil daitezke:

<ul style="list-style-type: none">• gaiaren gaurkotasuna• artikuluaaren luzera• autorea• elementu grafikoak• titular-mota• “lead”-a (informazioaren eduki globalaren parterik inportanteena laburbiltzen duen azpтитulo luzea) agertzen den• izaera informatzailea• iritziaren presentzia	
--	--



10. Ondoko testuan, prentsan agertutako lan-gatazka egoera azaltzen da. Irakurri eta gero, enuntziatu gatazka hori konpontzeko bi era kontrajarriak.

Alitalia porrot egiteko arriskuan da, lan gatazka amaitu ezean

EasyJetek prezio txikien lehiari egotzi dio galera handiak pilatu izana

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Zuzendaritzak eta sindikatuek lan gatazkari berehala irtenbidea aurkitu ezean, Alitalia porrot egiteko arrisku bizian dela ohartarazi zuen atzo Italiako Gobernuak. Ordu oro 50.000 euro galtzen ari da Italiako aire konpainia nagusia, eta 200 milioi euro baizik ez zaizkio geratzen kutxetan.

«Alitalia salba daiteke, baina porrot ere egin dezake», ziurtatu zuen atzo Rocco Buttiglione, negoziazioetan parte hartzen ari den Europako Gaietarako ministroak. Estatuak akzioen %62 bere esku ditu. Adierazpen horiekin sindikatuak presionatu nahi zituen Gobernuak batik bat, bere iritziz ezinbestekoak diren kaleratzeak oztopatzen dituelako. Alitaliako 21.000 langileetatik %16 kaleratzeko plana aurkeztu du zuzendaritzak. Sindikatuek, berriz, greba eginez erantzun diote eta 200 milioi euro aurrezteko plan alternatiboa aurkeztu dute. Alitaliaren akzioak kotizaziotik atera zituzten atzo Milango Burtsan, bat-batean %15 amildu ondoren. Baina betiko aire konpainiak ez dira arazoak dituzten bakarrak. Kostu txikiko Europako bigarren enpresa handienak, EasyJet britainiarrak, 40 milioi euroko galerak iragarri zituen atzo azken sei hilabeteetarako. Lehiakideen prezio «txikiegi» eta «irrealistei» egotzi zien erantzukizuna. Burtsan %20 egin zuen behera EasyJetek.

”Berria”-tik

hartua

Erantzuna:

Aukera oso ezberdinak izan daitezke, adibidez, sindikatuek onartzea kanporaketak, edo, nahiz eta konpainiak porrot izateko arriskua izan protesta ekintzekin jarraitu. Edozein kasutan saiatu behar da ikasle bakoitzak parte har dezan eta irtenbide ezberdinak ager daitezen, hurrengo aktibitateetan defendatu ahal izateko.

11. Aurreko atazeko proposamenetako bat aukeratu eta bilatu haren aldeko argudioak. Gero, gauza bera egin beste proposamenarekin. Saiatu kasu bakoitzean erabiltzen diren argudioak mota diferentekoak izan daitezen (autoritatea, norbere esperientzia, ...)

Erantzuna:

Honako zerrenda erabil daiteke aktibitatea prestatzen laguntzeko.

Argudio-motak

“Argudio” deritzo **igorleak tesi bat frogatu edo gezurtatzeko eta hartzailea tesi horren egiaz edo gezurraz komentitzeko erabiltzen duen arrazonamenduari**. Argudio mota garrantzitsuetarikoak honakoak dira:

Autoritatezko argudioa: horrelako argudioan, argumentatzailea bera baino jakintsuagoak diren beste pertsonen iritzia agertu ohi da. Argudio-mota honetan, argudioaren eiazkotasuna frogatzen duten zientzialarien ikerketak, ospe handiko entitate edo pertsonen iritzia etabar aurkezten dira aipamen zehatzen bidez. Argudio-mota ona da, baina gerta



daiteke hartzaileak ez onartzea igorleak aipatzen duen autoritatea. Zenbaitetan argudioaren balioa ezeztatzen da aipatzen den autoritatearen deskalifikazioaren bitartez.

“Richard Alley, Pennsylvaniako Unibertsitateko glaziologoaren ustez , gaur egun ikusten digugun sintoma batzuek adierazten dute planetaren berotze globala inoiz baino kezkarriagoa izan daitekeela”

Kausa-ondoriozko argudioa: horrelako argudioan, gertaera baten arrazoiak aurkezten dira gertaera beraren azalpen gisa. Era honetako argudioan, zientifikoki froga daitezkeen arrazoi probable eta oinarrituak erakutsi behar dira.

“erretzaile izateak bizitzaren iraupena laburtzen du, baita bere kalitatea gutxitu ere, zeren jadanik frogatua baitago erretzaileek arnas aparatuen eta zirkulazio aparatuen gaixotasun gehiago izaten dutela”

Adibideen bitartezko argudioak: gertaera baten azalpenaren bidez zenbait adibide konkretu ekartzen dira harira egin nahi den generalizazio baten zerbitzuan. Adibide horiek argudio gisa erabitzen dira, alegia.

“eskiatzeko ekipo oso bat erosteak 1000 euro inguru balio du, eta asteburu bat eskiatzen pasatzeak eski estazio batean 300 eurotik gora. Ez dago ekonomista izan beharrik esan ahal izateko eskiatzeko zaletasuna ez dagoela oraindik hainbat pertsonaren eskura”

tradizioaren ezagupenean oinarritutako argudioa: gizarte batean ezarri eta onartutako printzipioak eta jakintzak (topikoak) aipatzen dira arrazoi gisa. Horrelako argudioetan kontziente izan behar dugu gizarteak normalizat dituen auresuposizio horiek ez direla beti onargarriak.

“krisialdietan arrunta da geratzen diren lanpostu apurrak gizonei ematea; izan ere , betidanik izan dira gizonak familiaren euskarria”

Esperientzia pertsonalean oinarritutako argudioa: horrelako argudioan, igorleak bere esperientzia propioak aipatzen ditu argudio gisa. Kontutan hartu behar da, argudio partziala denez, ez dela oso argudio fidagarria.

“garraio publikoaren funtzionamendua negargarria da Bizkaian. Ni neu adibidez, askotan heltzen naiz berandu lanera erabiltzen dudana garraio bidearen funtzionamendu eskasagatik”

ALDEKO ARGUDIOAK	KONTRAKO ARGUDIOAK



12. Aurreko atazeko hausnarketa egin ondoren, parte hartuko dute ikasleek “langatazken konponbideak” gaiaren inguruko eztabaidan.

Banatuko dugu klasea bi taldetan, eta talde bakoitzak tesi ezberdinen alde argudiatuko du.

Denen artean aukeratuko da moderatzaile bat, eta talde bakoitzak bere bozeramalea; gainerakoek eztabaidan hartuko dute parte eta ondorioak aterako dituzte.

Horrez gainera, izendatuko da pertsonaren bat behatzailearen papera egiteko.

Ezinbestekoa da taldeak defendatuko duen tesiaren aldeko argudioak elaboratzea eztabaida hasi baino lehen.

Argudioen baliagarritasunaz gain, behatzaileek egiaztatu beharko dute bozeramaleek arau soziokomunikatiboak betetzen dituzten. Taldearen ikuspuntuak biltzeko, komeni da behaketa-fitxa egokia erabiltzea.

KONTROL ORRIA

A) PLANIFIKAZIOA

- Aukeratu zuen argudio-ildoak, zerbaiten alde edo kontra, ...
- Hartu kontutan defendatuko duzuen iritzia pertsonala den edo talde bat ordezkatzeko duzuen
- Pentsatu nori zuzentzen zatzaizkioten.
- Idatzi esaldi labur batez zuen tesia.
- Bilatu antzerako garrantzia duten bi edo hiru argudio, eta mailakatu itzazue.

B) HASIERAKO ERREDAKZIOA

- Idatzi pasarte bat sarrera orokor gisa.
- Aukeratu duzuen emisore-motari dagokion pertsona gramatikala erabili.
- Banatu informazioa pasartetan modu orekatuan.
- Erabili lotura-hizki egokiak testuari batasuna emateko eta ulermena errazteko.
- Adierazi arrazoiak, ondorioak eta baldintzak ongi eraturako menpeko esaldien bidez.
- Lexiko egokia erabili.
- Zuzen erabili puntuazioa.

C) ERREBISIOA

- Errebisatu testua idatzi ahala ziurtatzeko bai edukiak, bai beronen antolaketak komunikatu nahi duzuen informazioa ondo isladatzen dutela.
- Erreparatu gainerako atal guztiak idazketa-prozesua bukatzera zoaztenean.



Erantzuna:

Balorazioa. 1 - guztiz desegokia
4 - guztiz egokia
2 eta 3 - tarteko balorazioa

ikaslea	1	2	3	4	Oharrak
Gaiari atxiki zaio					
Argudio sinesgarriak erabili ditu					
Argudioen adibideak eman ditu					
Besteen argudioen baliogabetzeko argudiorik erabili du					
Argudiozko baliabide eta estrategiak erabili ditu					
Argi hitz egin du, ahoskera eta doinuera egokiak erabili ditu					
Bere iritzia adierazi du doinu eta lexiko egokiak erabiliz					
Hitz-txanda errespetatu du					



PROBARAKO ADIBIDEA

Argibideak

Galdera bakoitzaren bukaeran dator bere balioa
Frogaren iraupena: 45 minutu

Irakurri honako testua eta erantzun testuaren ostean datozen galderak.

Pobrezia Gasteizen

CESAR MANZANOS BILBAO. SOZIOLOGIAKO DOKTOREA

Duela urte batzuetatik hona, Gasteizko «Udal Gobernuaren» politika, pixkanaka baina gero eta azkarrago, gizarte ongizatea bultzatzen ari da, bai behintzat ongizate hori bermatzen duten oinarrizko eskubideez gozatzeko aukera dugun sektoreontzat. Esaterako, hezkuntza, lana, etxebizitza eta osasuna dira ongizate hori. Badira, halere, egoera kaltetuagoan dauden herritar sektoreak: emakumeak, gazteak, etorkinak, lanerako eskubiderik ez dutenak edo etxea erosi ezin dutenak, administrazioen eta espekulatuzaileen arteko konplizitatezko politika dela eta; aipatutako sektore sozialak baztertu egiten ditugu pixkanaka, eta, sotiltasunez bada ere, ez diegu uzten gure hiri honetan ongizatearen zirkuluan gaudenon baldintza beretan bizitzen.

Bazterturiko gizarte sektore horietan, gehien-gehienek diru estutasunak dituzte hilabetearen amaierara iristeko; kasu batzuetan, soldata izugarri murrizak dituzte; beste batzuetan, berriz, azpienplegetan eta autoesplotazio baldintzetan egiten dute lan, eta beste batzuek etorkin asko edo etxekoandre asko esklabotasun hutsean bizi dira, ezkutuko ekonomian edo lan jardueratzat hartzen ez den produkzio ekonomian. Baztertutako sektore horien barnean miseria gorrian daudenek beharturik ikusten dute beren burua gizarte larrialdietarako laguntzetara jotzeko, prekaritatean betiere, eguneroko iraupenari aurre egin nahi badiote. .../...

Nolanahi ere, egungo «Udal Gobernuak», gobernu txar horrek, hiriko sektore aberatsenen baldintzak hobetzen dituzten azpiegitura eta ekipamenduak soilik bultzatzen ditu geure zergak baliatuz; hots, bere bezero politikoei egiten die mesede. Kontsumoan oinarritutako hiri eredu indartzen dute, eta itxurazko ongizate hori laguntzen dute: alegia, gutxi batzuek gehiengo handi baten lan prekarioari esker bizitzeko eredu sozioekonomikoa. Orain, pobrezia are aurkako benetako eraso gertatzen ari da; sektore baztertuenak gure hirian gizarte larrialdietarako laguntza jasotzen duten 3.000 pertsona horiek miseriarik gorrienera bultzatuko dituzte eta, ez dezagun ahaztu, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin laguntzen diru murrizketa nabarmenak direla medio.

Bi aukera izango dituzte soilik: batetik, emigratzea, pobrea izatea galarazita dagoen herri batean bizi direlako eta jabeak aberasten gaituen alokairu handiak ordaintzeko gai ez direlako; bestetik, berriz, bizimodua kalean egitea, eta kalea gero eta pribatizatuagoa dago: kalez kaleko salerosketa edo edozein jarduera marginal eragozteko gero eta polizia gehiago eta hobeto hornituak daude. Polizia hori milioika euro ordaintzen dugu, eta kalea lanerako edo kontsumorako leku soil bihurtu dute, udaleko agintariak hala aginduta; aterperik gabeko behartsuek ez dute inolako lekurik. Polizia ahaleginduko da gatazka sozialaren ondorioak ezkutatzeko eta zapaltzeko, baita hiriaren ordenarik gabeko itxura ere desagerrarazten ere; jarrera horrek guztiz umezurtz uzten ditu gizarteko sektore baztertuenak.

Gasteizen bizi garenontzat zera da lotsagarriena: geure Udalak erabilera politikoa egiten duela pertsona baztertuekin beste alderdiekin lehiari sartzeko, bere tradizio solidarioari muzin eginez, herritarrei bizkarra emanaz eta pobrezia merkataritza bihurtuz; .../.... Bada, ordea, gauza larriagorik: ezer ez daukatenak erabiltzea bata besteari kargu hartzeko arma politiko gisa. Hori bai, gero ez dute gizalegezko erreparorik izaten mezetara joan eta behartsuen alde otoitz egiteko. Zurikeria



benetakoa. Beste pertsona batzuek, berriz, behartsuei esker zerua irabaztea bezain helburu duinik ez dugunok, elkarretaratzea egingo dugu, gizartearen babes falta eragiten duen politika basati hori salatzeko. Gaur izango da, eguerdiko hamabietan, Posta kaleak Plaza Berriaren sarrerarekin bat egiten duen lekuan.

“Berria”-tik hartua

GALDERAK

1. Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak deskribatu eta arrazonatu zure erantzuna: (1,5 puntu)
 - a. non argitaratu da?
 - b. nori zuzentzen zaio?
 - c. zer da, azalpena, narrazioa, edo argudioa?
 - d. zein testu-motarekin identifikatzen duzu?
2. Azaldu esaldi baten bidez zein den testuaren gaia (1,5 puntu)
3. Laburtu esaldi bakar baten bidez azken hiru pasartearen oinarritzko ideia (2 puntu)

3. pasartea	
4. pasartea	
5. pasartea	

4. Azaldu testuan azpimarratuta dauden honako esapideen esanahia. (2 puntu)

“azpienpleguetan eta autoesplotazio baldintzetan”	
“kalea gero eta pribatizatuagoa dago”	
“jarrera horrek guztiz umezurtz uzten ditu”	

5. Egin testuan erabiltzen den hizkuntza-erregistroari buruzko iruzkina. Nabarmendu horren inguruko ezaugarri garrantzizkoenak. (3 puntu)



PROBARAKO ADIBIDEEN ERANTZUNAK

PUNTUAKETA

1. GALDERA	1,5 PUNTU
2. GALDERA	1,5 PUNTU
3. GALDERA	2 PUNTU
4. GALDERA	2 PUNTU
5. GALDERA	3 PUNTU

(Euskal Hizkuntza eta Literatura)

Irakurri honako testua eta erantzun testuaren ostean datozen galderak.

Pobrezia Gasteizen

CESAR MANZANOS BILBAO. SOZIOLOGIAKO DOKTOREA

Duela urte batzuetatik hona, Gasteizko «Udal Gobernuaren» politika, pixkanaka baina gero eta azkarrago, gizarte **ongizatea** bultzatzen ari da, bai behintzat ongizate hori **bermatzen** duten oinarrizko eskubideez gozatzeko aukera dugun sektoreontzat. Esaterako, hezkuntza, lana, etxebizitza eta osasuna dira ongizate hori. Badira, halere, egoera kaltetuagoan dauden herritar sektoreak: emakumeak, gazteak, etorkinak, lanerako eskubiderik ez dutenak edo etxea erosi ezin dutenak, administrazioen eta espekulatzailen arteko konplizitatezko politika dela eta; aipatutako sektore sozialak baztertu egiten ditugu pixkanaka, eta, sotiltasunez bada ere, ez diegu uzten gure hiri honetan ongizatearen zirkuluan gaudenon baldintza beretan bizitzen.

Bazterturiko gizarte sektore horietan, gehien-gehienek diru estutasunak dituzte hilabetearen amaierara iristeko; kasu batzuetan, soldata izugarri murrizak dituzte; beste batzuetan, berriz, azpienpleguetan eta autoesplotazio baldintzetan egiten dute lan, eta beste batzuek etorkin asko edo etxeokandrea asko esklabotasun hutsean bizi dira, ezkutuko ekonomian edo lan jardueratzat hartzen ez den produkzio ekonomian. Baztertutako sektore horien barnean miseria gorrian daudenek beharturik ikusten dute beren burua gizarte larrialdietarako laguntzetara jotzeko, prekaritatean betiere, eguneroko iraupenari aurre egin nahi badiote. .../...

Nolanahi ere, egungo «Udal Gobernuak», gobernu txar horrek, hiriko sektore aberatsenen baldintzak hobetzen dituzten **azpiegitura** eta ekipamenduak soilik bultzatzen ditu geure zergak baliatuz; hots, bere bezero politikoei egiten die mesede. Kontsumoan oinarritutako hiri eredu indartzen dute, eta itxurazko ongizate hori laguntzen dute: alegia, gutxi batzuek gehiengo handi baten lan prekarioari esker bizitzeko eredu sozioekonomikoa. Orain, pobrezia arekako benetako eraso gertatzen ari da; sektore baztertuenak gure hirian gizarte larrialdietarako laguntza jasotzen duten 3.000 pertsona horiek miseriarik gorrienera bultzatuko dituzte eta, ez dezagun ahaztu, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin laguntzen diru murrizketa nabarmenak direla medio.

Bi aukera izango dituzte soilik: batetik, emigratzea, pobrea izatea galarazita dagoen herri batean bizi direlako eta jabeak aberasten gaituen alokairu handiak ordaintzeko gai ez direlako; bestetik, berriz, bizimodua kalean egitea, eta kalea gero eta pribatizatuagoa dago: kalez kaleko salerosketa edo edozein jardura marginal eragozteko gero eta polizia gehiago eta hobeto hornituak daude. Polizia hori milioika euro ordaintzen dugu, eta kalea lanerako edo kontsumorako leku soil bihurtu dute, udaleko agintariak hala aginduta; aterperik gabeko behartsuek ez dute inolako lekurik. Polizia ahaleginduko da gatazka sozialaren ondorioak ezkututzen eta zapaltzen, baita hiriaren ordenarik



gabeko itxura ere desagerrarazten ere; jarrera horrek guztiz umezurtz uzten ditu gizarteko sektore baztertuenak.

Gasteizen bizi garenontzat zera da lotsagarriena: geure Udalak erabilera politikoa egiten duela pertsona baztertuekin beste alderdiekin lehian sartzeko, bere tradizio solidarioari **muzin** eginez, herritarrei bizkarra emanez eta pobrezia merkataritza bihurtuz; .../.... Bada, ordea, gauza larriagorik: ezer ez daukatenak erabiltzea batak besteari kargu hartzeko arma politiko gisa. Hori bai, gero ez dute gizalegezko erreparorik izaten mezetara joan eta behartsuen alde otoitz egiteko. Zurikeria benetakoa. Beste pertsona batzuok, berriz, behartsuei esker zerua irabaztea bezain helburu duinik ez dugunok, elkarretaratzea egingo dugu, gizartearen babes falta eragiten duen politika basati hori salatzeko. Gaur izango da, eguerdiko hamabietan, Posta kaleak Plaza Berriaren sarrerarekin bat egiten duen lekuan.

“Berria”-tik hartua

GALDERAK

1. **Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak deskribatu eta arrazonatu zure erantzuna: non argitaratu da?, nori zuzentzen zaio?, zer da, azalpena, narrazioa, edo argudioa? , zein testu-tiporekin identifikatzen duzu? (1,5 puntu)**

Erantzuna:

Egunkari, aldizkari edo gizarte-komunikabide idatzia.
Prensa idatziaren ohiko irakurleei zuzendua dago. Nagusiki iritzi-artikuluak irakurtzeko ohitura dutenei.
Argudioa da. Iritzi bat defendatzeko idatzitako testua.
Iritzi-artikulu da.

2. **Identifikatu testuaren helburua (1,5 puntu)**
 - a. Deskribatu behartsuen egoera Gasteizen.
 - b. Salatu Gasteizko Udal Gobernuaren behartsuekiko politika.
 - c. Argudiatu laguntza sozialak bideratzeak gizartearentzat duen garrantzia.
 - d. Deitu manifestaldi batera.

Erantzuna:

Salatu Gasteizko Udal Gobernuaren behartsuekiko politika.

3. **Laburtu esaldi bakar baten bidez pasarte bakoitzaren oinarrizko ideia. (2 puntu)**

1. pasartea	
2. pasartea	
3. pasartea	
4. pasartea	
5. pasartea	



Erantzuna:

1. pasartea	Gasteizko Udal Gobernuaren politika gizarte-ongizatea bultzatzen ari da, baina ez egoera ahulenean dauden herritarrentzat
2. pasartea	Egoera prekarioan dauden Gasteiztar horiek gizarte-laguntzen zerbitzuetara jo beharrean dira
3. pasartea	Udal Gobernuak aberatsenen interesak baino ez ditu defenditzen, eta sektore baztertuenak ahaztu
4. pasartea	Sektore marjinalak aukera gutxi dute, eta gainera, poliziak erreprimitzen ditu
5. pasartea	Udal arduradunen zurikeria salatzen da

4. Azaldu testuan azpimarratuta dauden honako esapideen esanahia. (2 puntu)

“azpienpleguetan eta autoesplotazio baldintzetan”	
“ezkutuko ekonomian edo lan jardueratzat hartzen ez den produkzio ekonomian”	
“miseriarik gorrienera”	
“kalea gero eta pribatizatuagoa dago”	
“jarrera horrek guztiz umezurtz uzten ditu”	
“erabilera politikoa”	
“Zurikeria benetakoa”	
“elkarretaratzea egingo dugu”	

Erantzuna:

“azpienpleguetan eta autoesplotazio baldintzetan”	Lan-baldintza oso prekarioetan, dela enpresaburuek inposatuta, dela norberak, halabeharrez, inposatuak
“ezkutuko ekonomian edo lan jardueratzat hartzen ez den produkzio ekonomian”	Legalizatu gabeko jarduera ekonomikoetan edo ordainduta ez dauden lanetan.
“miseriarik gorrienera”	Pobrezia-egoera oso larrira
“gero eta pribatizatuagoa dago”	Gero eta gauza gutxiago uzten dira egiten
“umezurtz”	Babesik gabe
“erabilera politikoa”	Abantaila politikoak lortzeko erabilera
“Zurikeria benetakoa”	Portaera oso hipokrita
“elkarretaratzea egingo dugu”	Bilduko gara



5. Egin testuan erabiltzen den hizkuntza erregistroari buruzko iruzkina. Nabarmendu horren inguruko ezaugarri inportanteenak. (3 puntu)

Erantzuna:

Testuak darabilen erregistroa egunkarietan erabili ohi dena da. Estandarra dela esan dezakegu, eta bere ezaugarriak honakoak dira: formala izatea, erregistro kultutik hurbil, baina elkarrizketa-erregistroko elementuak dituena.

Testuko sintaxia, oro har, neutroa da. Esaldi gehienak enuntziatiboak dira, erregistro formaleko berezko egitura sintaktikoa alegia, eta ez da galderarik edo harridurazko esaldirik ageri. Hala ere, testuaren helburua iritzi bat ematea denez, eta ez informazio soila, sintaxiaren izaera neutro hori indartzen dituzten esapideak erabiltzen dira maiz (“... pobreziaren aurkako benetako erasoa ...”, “... pobrea izatea galarazita dagoen herri batean ...”, “... zera da lotsagarriena ...”, ...)

Lexikoari dagokionez nahastu egiten dira hitz kultuak (ongizatea, bermatu, azpiegitura...), berriki beste hizkuntzetatik euskaratu diren hitzak eta kutsu hiritar kultua ematen dutenak (espekulatzaila, sektore sozialak, kontsumoa...), eta irakurlearengana hurbiltzea helburu duten bestelako hitz eta esapideak ere (miseriarik gorriena, mezetara joan, zerua irabazi...)



PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA ADIERAZLEEN ARTEKO ELKARREKIKOTASUNAK

Gald.	Ezagutza-adierazleak
1	3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuingurukoak, diskurtsiboak eta hizkuntzakoak, eta horien formatua antzematea.
2	3.1. Miltzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea.
3	3.1. Miltzo honen berezko testu ahozkoak eta idatzizkoak ulertzea eta horien asmoa eta xedea antzematea. 2.4. Testuen edukia zehatz jasoko duen laburpena egitea. 2.5. Testu baten ideiak eskematizatzea, nagusiak direnak bigarren mailakoetatik bereiziz eta horien arteko hierarkia ezarriz.
4	3.4. Esparru honen berezko testuen ezaugarri testuingurukoak, diskurtsiboak eta hizkuntzakoak (lexikoak), eta horien formatua antzematea.
5	



PROGRAMAZIOA ETA IKASKETARAKO BALIABIDEAK

• PROGRAMAZIOA

Modulu honek lau eduki-bloke ditu hizkuntzaren lau erabilera-eremutan antolatua. Izan ere, erabilera-eremu hauetan jardura profesionala eta bizitza sozialarekin erlazionatutako egoerak sortu egiten dira. Hortaz, proposatu egiten da aztertzea eremu instituzionaleko testuak, pertsonen arteko harremanetakoak, ikaskuntza-eremukoak eta hedabideetakoak.

Hizkuntza-erabileren ikasketak testu-genero ezberdinen azterketa eskatzen du, ohar batetik hasita berri oso bateraino, edo laburpen xume batetik txosten oso bateraino. Erabilera hauen jasotze- eta menperatze-prozesuak, komunikazio-egoerarekin erlazionatutako zenbait faktoreren menpe dago, besteak beste: erabilera-eremua bera (pertsonen arteko harremanetako testuak, printzipioz, errazagoak dira harreman instituzionaletakoak baino), jasotako gaitasun eta trebeziak (ama-hizkuntzaren entzutezko ulermena idazmena baino errazago suertatzen da), testuen helburua (kontatzea errazago da konbentzitzea baino).

Programazio eredia egiterakoan, aurrean deskribatu faktore horien konbinaketa hautatu da. Proposatzen da sekuentzia didaktikoen zerrenda, zeinetan, hasteko, lan-bizitzarekin erlazionaturiko arautegi baten elaborazioari ekiten zaion; jarraian, lanbidearekin erlazionatutako ikerketa baten aurkezpenari ekiteko, euskarri informatiko eta ahozko hizkuntzaren bidez; gero, komunikabideetako iritzia eta hau berau adierazteko baliabideen errekonozimendurekin segitzeko; eta, azkenik, norbere iritziaren adierazpena eta defentsarekin bukatzeko, argudio eta estrategia eraginkorren erabileraren bidez.

Hizkuntza-erabileren ikasketaren izaera errepikaria dela eta, bloke bakoitzean zerrendatutako eduki asko errepikatu egiten dira. Izan ere, edukiok ez dira eremu konkretu bateko elementu esklusiboak, baizik eremu ezberdinetako langai izan daitezkeenak.

Planteamendu honek edukien antolaketa ezberdinetarako bide ematen dio irakasleari, beti ere ikasketen garapenaren koherentzia eta progresioaren irizpideei atxikitzen bazaie.

Eduki-blokeak	Ikasketa Unitateak	Izendapena	Ordu kopurua
Hizkuntza harreman instituzionaletan	1	Arautegiak lan-munduan	15 ordu
Hizkuntza ikasketan	2	Ikerketa-prozesuak	30 ordu
Hizkuntza hedabideetan	3	Iritzia hedabideetan	30 ordu
Hizkuntza pertsonen arteko harremanetan	4	Pertsonen arteko komunikazioa lan- munduan	15 ordu

1. Ikasketa Unitatea: ARAUTEGIAK LAN MUNDUAN (15 ordu)

Eremu instituzionaleko hizkuntza erabilerak bizitza profesional eta sozialaren hainbat harreman bideratzeko balio dute. Unitate honen helburua da gizakiak hiritar gisa burutu behar dituen zeregin batzuetara (legeak, txostenak, protokoloak, ...) hurbiltzea.

Unitateko aktibitateek aipatutako genero testualen ezaugarritzea dute helburu. Horrela, bideratu nahi da mota horretako testuen edukiaren ulermena eta baita bere produkzioa, beti ere modu egoki zuzen eta koherentean.

Aktibitateak antola daitezke lan bizitzaren atal konkretu bateko arautegiaren elaborazioaren inguruan. Egitasmo horren inguruan, ereduaren analisiak, mota horretako testuen testuinguru-ezaugarriak, berbalizko eta hizkuntzazkoen ezagutzea, eta testuen elaborazioa bezalako aktibitateak burutuko dira.



2. Ikasketa Unitatea: IKERKETA PROZESUAK (30 ordu)

Ikasketa ez da eskolarekin batera amaitzen, ostera, heldu aroan ere jarraitu egiten da. Bereziki inportantea da, gainera, gaur egunean, non etengabeko gaurkotzea, lanerako berrikuntzen ikasketa eta honen beronen konpartitzeko gaitasuna ezinbestekoak diren.

Unitate honen helburuak, bizitza akademikoan mugitzeko muntazko informazioaren bilketa eta birformulatzea dira. Ikasleek iturri ezberdinetako eta genero testual diferentetako informazioak ulertu beharko dituzte, eta baita testu horietan oinarrituta beste berriak egin beharko dituzte.

Unitatearen edukiak eremu honetako testuen ezaugarri testualen ezagutzea eta bereganatzearen inguruan antolatuko dira. Batez ere, testuak azalpenezkoak izango dira, baina argudiozko elementuak ere izan ditzakete. Horrez gain, ezaugarri horiek erabili egingo dira testu berrien sormenean. Aktibitate hauek burutzeko, gainera, aparteko garrantzia dute informazioaren bilketa eta birformulatzeako teknikak bereganatzeak eta lan hauetan komunikazioaren eta informatikaren teknologia berriak erabiltzea.

Informazio eta komunikazioaren teknologiek ezagupenak bereganatzeko eta espresatzeko duten garrantzi gero eta handiagoa kontutan hartuta, unitate honetako aktibitateak lanbide-arlo konkretu bateko gai baten inguruko ikerketaren inguruan antola daitezke. Testuaren sorkuntzak bi fase izango ditu, aurkezpen digitala hazteko, eta gero ahozko aurkezpena.

3. Ikasketa Unitatea: IRITZIA HEDABIDEETAN (30 ordu)

Hedabideek muntazko presentzia dute informazioaren gizartean iritziak sortzeko eta aldatzeko duten gaitasun izugarria dela eta. Horregatik da horren inportantea beren teknikak ikastea .

Unitate honen xedea, informazioa eta iritzia bereizi ahal izateko hizkuntz ezaugarriak bereganatzea da. Horrekin batera, iritzi horiek baloratzeko eta kontrastatzeko irizpideak garatu nahi dira.

Edukiak, hedabide ezberdinetako iritzi-testuen analisisian oinarritzen dira. Gainera, norbere iritziak defendatzeko eta besteenak erantzuteko beharrezko hizkuntz prozedurak ezagutzera ere daude bideratuta.

Aktibitateak, hedabideetan publikatzeko argudiozko testuaren elaborazioa xede duen lan proiektuaren inguruan antola daitezke. Adibidez, testua, egunkari bateko “zuzendariari gutunak” sailera zuzendutakoa izan daiteke, zeinetan enpresa bat erabaki bat hartzera bultzatu duten arrazoiak azaltzen diren.

Hori egiteko, “zuzendariari gutunak” saileko testuak analizatuko dira, kontrastatuko dira informaziozko testuak argudiozkoekin, eta amaitzeko, prentsa-oharra edo zuzendariarentzako gutuna idatziko da, bertan hartutako erabakia ondo argudiatua biltzeko.

4. Ikasketa Unitatea: PERTSONEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA (15 ordu)

Ukaezina da pertsonen arteko harremanek duten garrantzia profesional eta sozial munduan harremanen funtzionamendu ona, solaskideen arteko, komunikazio eraginkorrean datza. Horregatik dira, hain zuzen ere, horren garrantzizkoak trebetasun komunikatiboak.

Unitate honen jomuga da komunikazio-prozesuak eraginkorrak izan daitezen. Horretarako, harreman komunikatiboetan eraginkorki parte hartzeko estrategiak eskuratu beharko dira.

Edukiak, eremu honetako testuen ulermena eta analisisian zentratuko dira (lan-eztabaidak, iritzia emateko batzarrak, elkarrizketak), eta baita horien produkzioan ere. Unitate honetan bereziki inportanteak dira iritzia emateko eragiketa komunikatiboak, eta horregatik arreta berezia jarri



behar da, hitz egiteko txandak eta besteen iritziekiko errespetuan, eta oro har arau komunikatiboak gordetzean.

Unitate honetako aktibitateek osatzen duten proiektua lan-bilera baten simulazioa izango da, zeinetan lan txanden inguruko erabakiak hartuko diren. Hori egin ahal izateko, lehenago beste lan batzuk egin beharko dira, adibidez, informazio bilketa, bileran tratatuko diren puntuen inguruko txosten zehaztuaren elaborazioa eta norbere iritzia defendatzeko argudio sendoen bilaketa.

Ikasketa Unitateen eta ezagutza-adierazleen arteko elkarrekikotasunak.


Ikasketa Unitateak	Izendapena	Ezagutza-adierazleak
IU 1	Arautegiak lan-munduan	1.1., 1.2, 1.3, 1.4, 1.5
IU 2	Ikerketa-prozesuak	2.1, 2.2, 2.3, 2.4, 2.5, 2.6, 2.7, 2.8, 2.9
IU 3	Iritzia hedabideetan	3.1, 3.2, 3.3, 3.4
IU 4	Pertsonen arteko komunikazioa lan-munduan	4.1, 4.2, 4.3, 4.4, 4.5, 4.6, 4.7, 4.8

Ikasketa-unitateetan aplikatu beharreko metodologia

Proposatutako ikasketa unitateek proiektuetan oinarritutako metodologia segitzen dute. Izan ere, metodologia hori hobeto moldatzen da ikasleak bere ikasketa-prozesuaren eragile aktibo izan daitezen. Hortaz:

- Aktibitateak elkarrekin loturik egon behar dute eta aurrerakortasuna izan behar dute bukaerako produktu baten bila doan progresio batean.
- Sekuentzia bakoitzean, aktibitateek ahozko eta entzutezko ulermena landu behar dute, eta baita ahozko eta idatzizko adierazpena ere.
- Aktibitateek dibertsoak izan behar dute eta prozesu ezberdinak burutu, adibidez analisia, ezagupena, informazioa birformulatzea, eskemen elaborazioa, banakako lanak, taldekoak, ahozko lanak eta idatzizkoak, eta abar.
- Prozedurazko edukiak izango dira sekuentzia didaktikoen ardatza, eta horretara egongo dira makurturik gainerako edukiak, baita kontzeptuak ere.

Proiektuetan oinarrituriko metodologia hobeto aprobetxatzeko komenigarria litzateke lan-saioak bi ordukoak izatea, izan ere zenbait prozedura ezin baitaitezke burutu ordu bakar batean eta ez da komeni aktibitate batzuk moztea.



• IKASKETARAKO BALIABIDEAK

AHOZKO HIZKUNTZAREN INGURUAN

- **“Hablar y escuchar”**. M^a Dolores Abascal eta beste batzuk. Octaedro. Ahozko hizkuntza lantzeko ideia interesgarriak erakusten ditu.
- **“Expresión Oral”**. Alhambra. Nueva Breda 9 bilduma
- www.pnte.cfnavarra.es/publicaciones/pdf/blitznaranjausk.pdf. Webgune honetan ahozko azalpenak nola egin behar diren azaltzen da eta hainbat ariketa eskaintzen dira.

IDATZIKO HIZKUNTZAREN INGURUAN

- **“La construcción de la escritura”**. Daniel Cassany. Paidós argitaletxea. Idazketari buruzko teoriak aparte, idazketa-aktibitatez betetako gehigarria ere badakar. Ariketak espainolez badotoz ere, euskarazko ariketak pentsatzeko eta prestatzeko bide ere ematen du.
- **“Reparar la escritura”** Daniel Cassany. Graó argitaletxea. Tresna baliagarri suerta daiteke testu idatziak zuzentzeko. Ideia franko eskaintzen du ebaluaziorako fitxak prestatzeko.
- **“Idazkera-liburua”**. Jose Ramon Zubimendi eta Peio Esnal. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1993. liburu honetan nagusiki euskaraz idatzi nahi duenarentzako material teorikoa eta arau gramatikal eta estilokoak eskaintzen ditu.
- **“Argi idazteko bideak”**. IVAP. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz 1996. IVAP-eko aldizkariaren ale honetan analizatzen da idazterakoan kontutan hartu behar diren hainbat gauza. Hiru kapituluak banatuta dago: “Idatzi baino lehen”, “Idazterakoan” eta “Idatzi ondoren”. Hainbat adibide aipatzen dira esaten denaren erakusgarri.

ULERMENAREN INGURUAN

- **“Enseñar Lengua”**. Daniel Cassany. Graó argitaletxea. 6.4 kapituluak. Bertan, Didaktika atalean, ulermena lantzeko aktibitateak burutzeko iradokizun franko agertzen da.
- “Euskaldunak euskaraz jutzen-Murgilduz”**. HABE. Eusko Jaurlaritza 1988. Liburu hau alfabetatu nahi duten euskaldunen zentzuko pentsatuta dagoen arren, irakurriaren ulermeneko ariketa ugari dakar.

TESTU MOTA EZBERDINEN INGURUAN

- **Lan mundurako zenbait testu berezi idazteko ezaupideak emateko materialak, hala nola: curriculumak, aurkezpen gutunak, lan elkarrizketak, ...**
 1. <http://www.gipe.ua.es/formacion/index.html>
 2. www.gazteukera.euskadi.net/r58-2246/eu/contenidos/informacion/empleo_buscas/eu_1722/buscas_empleo_e.html - 40k -
- **Nola idatzi posta elektronikorako testu bat**
 1. <http://www.elistas.net/lista/rompecadenas/ficheros/3>
 2. <http://es.docs.yahoo.com/benefits/write.html>



3. **“Enpresan euskaraz: idazten laguntzeko tresna”** Elhuyar-ek argitaratutako CDa. Enpresako testuak euskaraz idazten laguntzeko liburu elektronikoa da. Besteak beste posta elektronikoak nola idatzi azaltzen du, baina baita beste zenbait testu ere. CD honi buruzko informazio gehiago jaso daiteke honako Web orrialdean: (www.erabili.com/zer_berri/berriak/1086003124 - 18k)
4. www.sartu.org/aprendiendointernet/web_eus/tresnak/idatzi1.htm - 18k . Webgune honetan azaldu egiten da nola erabili posta elektronikoa. Nahiz eta testua bera nola idatzi behar den argitzeko ezer ez dakarren, programa bera nola erabili behar den argitzeko erabil daiteke.

- **Hedabideetako berezko testuekin lan egiteko materialak**

<http://icarito.latercera.cl/especiales/periodismo/generos/portadilla.htm>

- Testu mota ezberdinei buruzkoa da material hau. Testu mota ezberdinak ezaugarritzen ditu baina ez du ariketarik eskaintzen.

http://www.hiru.com/lengua_castellana?taldea=HIZK_testua_hitza

- **Azalpen- eta argudio-testuekin lan egiteko materialak**

1. **“Aprendo a escribir. Exponer y argumentar”**, **HERNÁNDEZ, G. Y RELLÁN, C.** (1999), SGEL, Madrid.
2. **“Cómo hacer un trabajo escrito”**, Irene de Puig, Octaedro
3. www.pnte.cfnavarra.es/publicaciones/pdf/argudiatu.pdf. Webgune honetan aurkezten da DBH bigarren zikloan argudiozko testuak lantzeko material praktikoa, arketa eta adibideekin, baina baita programazio eta justifikazio teorikoa ere.

TESTU LIBURUAK.

DBHoko testu liburu ia guztiek eskaintzen dute ikasketa unitateetan proposatzen diren testu motekin lan egiteko teoria eta aktibitate franko. Horra izen batzuk adibide gisa:

- “Euskal hizkuntza eta literatura”. “1-Azalpen testuak”. “2-Testu formalak eta jarraibidezkoak”. DBHO- Batxilergo 2. Andres Alberdi eta Markos Balentziaga. Elkarlanean-Ikastolen Elkartea. Nafarroa 1998.
- “Euskal hizkuntza eta literatura”. “3-Argudio testuak”. “4-Testu humanistikoak eta saiakera”. DBHO- Batxilergo 2. Andres Alberdi eta Markos Balentziaga. Elkarlanean-Ikastolen Elkartea. Nafarroa 1999.
- “Euskal hizkuntza eta literatura”. “5-Iritzizko testuak eta komunikabide nagusiak”. “6-Publizitatea: informatu ala manipulatu”. DBHO- Batxilergo 2. Andres Alberdi eta Markos Balentziaga. Elkarlanean-Ikastolen Elkartea. Nafarroa 1999.
- “Hizkuntza eta literatura II”. Batxilergoa II. Jon Elordi eta beste batzuk. Giltza-Edebé. Bartzelona 2004.
- “Euskara eta literatura”. Batxilergoa 1. Andres Alberdi eta beste batzuk. Elkar. Donostia 2004.
- “Argiro idazteko proposamenak eta ariketak. Jexux Eizagirre eta beste batzuk. HAEE-IVAP. Bilbo 1997.